KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko abendua / 322. zenbakia

www.oñati.eus

Natur eskola berria

Berdeagoa, iraunkorragoa eta energetikoki eraginkorragoa

Birgaitze lanak amaituta, abenduaren 21ean inauguratuko dute

Eraikina bera eredu

Natur Eskola birgaitu du Udalak, bioarkitektura eta bioklimatika kontzeptuak aplikatuz. Abenduaren 21ean inauguratuko dute.

Nahi baino luzeago jo badute ere, amaitu dira Natur Eskola birgaitzeko lanak, eta abenduaren 21ean inauguratuko dute eraikin berritua.

Bioeraikuntzan aditua den Oreka Arkitektura bulegoak idatzitako proiektuaren arabera egin dira birgaitze lanak. Neurriz egindako esku hartzeen bidez, aztarna ekologiko ahalik eta txikiena izango duen eraikin goxo, atsegin eta erosoa egokitzea zen helburua, eta Udala oso gustura dago emaitzarekin, Asier Iraeta, Ingurumen batzordeko buruak azaldu digunez. "Bai. Egia esan, berritzeko premia handia zeukan eraikinak, eta natur eskolaren kontzeptuan sakonduz, energetikoki oso eraginkorra izango den eraikin bat egokitzea izan da helburua. Nahi baino gehiago luzatu dira lanak, eta natur eskolako lantaldearentzat ere nekagarria izan da, baina, zorionez, eraikin berria prest dago, jada, eta denon onerako izango da, zalantza barik".

ASIER IRAETA
Ingurumen zinegotzia

«

Energetikoki oso eraginkorra izango den eraikin bat egokitzea zen helburua, eta oso gustura gaude emaitzarekin

ISOLAMENDU TERMIKOA

Energia eragikortasunean irabazteko asmoz, isolamendu termikoaren aldeko apustu sendoa egin da, eta eraikin osoa isolatu da kanpotik, hotza eta beroaren aurrean portaera termiko egokia duten material naturalak erabiliz eta zubi termikoak saihestuz. "Lasto fardoz, egurzuntzez eta zelulosaz osatutako geruza batekin inguratu da eraikina, eta fatxada nagusia alertze egurrezko oholez estali da", azaldu digu Iraetak. "Gainera, kortxoz estalitako zokalo bat eraiki da buelta guztian, hezetasunetik babesteko".

Horrez gain, behe solairuko zorua ere guztiz berritu da, eta kortxozko xafla isolatzaile batzuk erabili dira isolamendua indartzeko. Leihoak ere aldatu egin dira (lehen solairukoak izan ezik, hauek duela urte gutxi berritu zirelako) eta hiru geruzako leiho berriak ipini dira. Gainera, leihoen eta fatxaden arteko lotuneetan lamina bereziak erabili dira hermetikotasuna

Natur eskolako eskaileretan gora, Oñatin ohikoak diren hiru ekosistemen (hezeguneak, basoak eta harkaiztegiak) erreprodukzio ikusgarriak egokitu dituzte

bermatzeko. Teilatuan egokitu den estalki bizi edo berdeak ere isolamendu termiko eta akustikoa hobetzen lagunduko du.

Berokuntzari dagokionez, inertzia handiko berogailu bat egokitu da beheko solairuan, eraikin osoko gune komunak berotzeko. "Su egurra oso poliki erretzen duen eta adreilu errefraktarioen bidez bero asko ematen duen sistema bat da" azaldu digu Iraetak. "Horrez gain, aerotermia sistema erabiliko da gelak eta ura berotzeko; kanpoko airean dagoen energia termikoa aprobetxatzen duen sistema berriztagarria da aerotermia".

Eraikin osoa isolatu da termikoki. Ur sanitarioa eta ikasgelak berotzeko aerotermia erabiliko da. Komun lehorrak ere ipini dira, eta ur zikinak fito-arazketa bidez garbituko dira

KOMUN LEHORRAK ETA FITO-ARAZKETA

Uraren zikloa (kontsumoa, berrerabilpena, arazketa) ere oso kontuan hartu da natur eskolaren eraberritzean. Ildo horretan, komun lehorrak eta fito-arazketa sistema egokitu dira. "Komun lehorretan ez da urik erabiltzen hondakinak bideratzeko, eta

CANDELUKA

ZURE IDEIAK ETA ESTILOA ISLATZEKO ARMAIRUA

Orain,
mutilentzako VOLCOM arropa
aurkituko duzu gure dendan

Abenduan **Volcom** markako arroparen bat erosten dutenen artean, **100€-ko erosketa bonoa** zozketatuko da*

Kale Barria 17
T. 943 08 81 84
info@candeluka.eus
www.candeluka.es

VOLCOM

* zozketa 2022/01/5ean egingo da. Sarituaren izena gure sare sozialetan argitaratuko da.



hauek bereizita irteten dira; hondakin likidoak eraikinaren aurrealdeko patioan egokitu den putzura bideratuko dira, eta bertako landare makrofitoek garbituko dute ura, errekara isuri aurretik. Komuneko hondakin solidoak, berrriz, erakinaren aldamen batean dagoen kutxara bideratzen dira zinta baten bidez, eta gainerako hondakin organikoekin (janaria...) batera konpost bihurtzen dira, zizareen lanari esker".

NATURARA IREKI

Teilatuko sabai-leihoa ere guztiz berritu da eta behe-solairuan ere beirate handiak ireki dira, argitasuna sartzeko eta eraikina kanporantz zabaltzeko, bisualki bada ere. "Lehen eta bigarren solairuetan ere gune ireki berriak egokitu dira, bi gela txikiren arteko hormak botata, eta beirate berriak zabalduta. Modu horretan argi naturala sartzen da barrura eta kanpoaldearekiko erreferentziak zabaltzen dira, inguruko natura eskolara gerturatuz".

Barne-banaketari dagokionez, ez da aldaketa handirik egin. Behe solairuan hiru gune bereizi dituzte: jangela, sukaldea (ogia egiteko...) eta tailerren txokoa (papera birziklatzeko...). Egokitutako komuna ere prestatu dute bertan. Goiko bi solairuetan, berriz, irakasleen gelaz gain, beste bost gela daude, behar bezala ekipatuta, Interneteko konexioarekin eta proiekzioak egin ahal izateko prestatuta.

Barne dekorazioari dagokionez, Oñatik dituen ekosistema ezberdinen (hezegunea, basoa eta harkaiztegia) erreprodukzio ikusgarriak egokitu dituzte eskailera gunean. Instalazio elektriko guztia ere berritu da kontsumoa murrizteko helburuarekin, eta eraikina margotzeko erabili diren pinturak ere oinarri naturalekoak dira.

Natur eskolaren aurrealdeko patioko zorua ere berritu egin dute; karez eta harez egindako pabimentu iragazkor bat egin dute, eta bertako urak putzura bideratzeko drainatze sistema ere bai. Gainera, portxe bat egokitu dute eskola atarian, harrerako gunea babestu eta eraikina bera indartzeko.

Guztira milioi bat euro pasatxoko inbertsioa egin da natur eskola birgaitzen. "Apustu handia egin dugu, baina uste dut merezi izan duela. Natur eskolari ahalik eta etekin handiena ateratzea da orain erronka" adierazi du Iraetak.

FITO-ARAZKETA Landareen bidez garbituko dira eskolako ur zikinak

BEROGAILUA Inertzia handiko berogailua egokitu da behe solairuan

BEIRATEAK. Eraikinaren atzealdeko fatxadan beirate handiak ireki dituzte argitasuna sartzeko eta eraikina kanporantz zabaltzeko

IKASGELAK Lehen eta bigarren solairuko ikasgeletan ekosistema ezberdinak erreproduzitzen dituzten dioramak daude

NATURA GERTURATU. Lehen eta bigarren solairuan gune ireki eta argitsuak sortu dituzte kanpoaldeko natura eskolara gerturatzeko

SABAI-LEIHOA berritu dute argitasuna sartzeko

Euskadi Etorbideko bulegoko lan-taldea.

«Bilatzen ditugun helburuak gertukotasuna, espezializazioa eta pertsonalizazioa dira»

-

«Lan arloko gestio guztiak Oñatiko bulegoan bertan egingo ditugu aurrerantzean»

GUALBI AHOLKULARITZA / espezialista berri bat lantaldea indartzeko

ZERBITZU GUZTIAK BAT OÑATIKO BULEGOAN

30 urte baino gehiagoko esperientzia duen Gualbi Aholkularitzak lan-arloan espezializatutako **lankide bat sartu berri du Oñatiko lantaldean**. Inkorporazio honi esker aholkularitza alorreko **zerbitzu guztiak Euskadi Etorbideko bulegoan bertan emango ditu**, bezeroari erantzun osoago eta zuzenago bat eskainiz.

Zergatik eta zertarako lankide berri bat? Gualbi haziz doa. Bezeroek geroz eta beharrizan gehiago dute eta guk, gure aldetik, horiei erantzun bat emateko betebeharra dugu. Orain arte lan-arloko zerbitzua gure Durangoko bulegoaren bitartez ematen bazen ere, Oñatiko bezeroen eskakizunetara egokitu gara; Oñatiko lantaldean sartu den pertsona berri honi esker, ohiko zerbitzuez gain lan-arloko edozein kontsulta nahiz gestio bertatik bertara erantzun ahal izango dugu. Bilatzen ditugun helburuak gertukotasuna eta bezeroarekiko espezializazioa eta pertsonalizazioa dira, horrek era berean bezeroarengan sortzen duen lasaitasuna, erosotasuna eta konfiantzarekin batera.

Zeintzuk dira aurrerantzean Oñatiko bulegoaren bitartez emango diren zerbitzu horiek? Enpresa eta autonomoei zuzenduta, Oñatiko bulegoan bertan egingo dira Gizarte Segurantzarekiko gestio guztiak, nominak, lan-kontratuak, koste simulazioak, baja/alta laboralen tramitazioak eta antzekoak. Halaber, bezero partikularrentzako lan-arloko zerbitzuak eskaintzen ditugu, hala nola etxeko langileen kontratuak.

Interesa dakiokeenarentzat, zein dira Oñatiko Gualbi Aholkularitzak eskaintzen dituen gainontzeko zerbitzuak? Autonomoen eta enpresen inguruko arlo guztiak lantzen ditugu, enpresaren sorreratik hasi eta egunerokoan sortzen diren behar guztietaraino (zerga-likidazioak, kontabilitatea, etab.). Kontu-auditoretzak ere eskaintzen ditugu. Horretaz gain, alor ezberdinetako adituak ditugu gure lantaldean partikularren edozein kontsulta erantzuteko: erretiro-azterketak, herentziak, atzerritartasun gaiak, alokairu-kontratuak, errenta-aitorpenak, etab.

Gualbi asesores

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

San Martingo hariztiaren osasuna aztergai

Zuhaitzen eta lurzoruaren egoeraren azterketa enkargatu dio Udalak Kimubat enpresari. Kudeaketa plan bat egitea da helburua, zuhaiztiaren kontserbazioa bermatu eta erabilera publikoak antolatzeko

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
Heriotza
Autoak
Bizitza
Istripuak
Ontziak
Osasuna
Etxebizitza
Aurrezkia
Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

San Martingo zuhaizti publikoaren inguruko eskaera, kezka, proposamen eta ikuspuntu ezberdinak entzun ditugu herritarren ahotan azken urteotan. Batzuentzat paseatzeko toki lasaia da San Martin; beste batzuentzat kirola egiteko toki aproposa, eta ume zein gazteentzako jolasteko tokia. Badaude zuhaiztiaren balore naturalak babestea lehenesten duten herritarrak, eta baita aisialdiko aukerak indartu eta horretarako azpiegiturak (bide egokitua, argiteria, jolas parkea...) egokitzea eskatzen dutenak. Hori guztiori kontuan hartuz, hariztiaren osasun egoera aztertu eta kudeaketa plan bat idaztea enkargatu dio Udalak *Kimubat* enpresari. Gabriel Iguiñiz arborista aditua ari da azterlana gidatzen eta berarekin izan gara.

Duela hilabete pare bat jaso zenuten San Martingo zuhaiztiaren azterlana egiteko enkargua. Zertan da?

Batez ere inbentario lana egin dugu orain arte. Oñatiko *Naturzaliak* taldeak orain dela zazpi urte egin zuen azterlan bikaina kontrastatu, eta pasealeku eder honen inguruan dagoen historia idatzia ere aztertu dugu.

Zuhaitzen eta lurzoruaren hasierako azterketa egiten ere hasi gara, baina hostoak erori arte itxaron nahi izan dugu, arbolen goialdea hobeto ikusi eta egon litezkeen arazoak hobeto detektatu ahal izateko.

Zein da zuhaiztiaren gaur egungo argazkia?

Berrehundik gora zuhaitz daude, bost lerrokadura osatuz. Gehienak haritzak dira, eta multzo nagusia osatzen duten zuhaitzek 150 urte inguru izango dituzte, baina badaude 250 urte edo gehiago izango dituztenak ere, ermitatik hurbil daudenen artean, bereziki.

Haritzez gain, pago batzuk ere badaude, parkearen erdi aldean batez ere, (40 urte edo gehiago izango dituzte), eta lizar batzuk ere bai.

Udal artxibategiko agirien bidez jakin dugunez, garai batean zumarrak ere landatu zituzten, baina gaur egun ez dago halakorik, hil egingo zirelako, ziurrenera, *grafiosi* izeneko gaitzaren ondorioz, Europa ia osoan bezalaxe.

Zuhaitzen eta lurzoruaren osasunaren inguruko kezkak eragin du azterlan hau. Zer antzeman duzue orain arte?

Zuhaitzei dagokienez, ulertu behar dugun lehenengo gauza da, zuhaitz kopuru inportante bat zahartzen ari dela, eta zahartze prozesua geldiezina eta atzeraezina dela. Ezin da ezer egin hori ekiditeko. Onartu egin behar dugu hori, eta ulertu, horrek arrisku batzuk dituela, zuhaitz-kopa edo adaburuak idortu eta lurrera erortzen direlako, poliki poliki.

Horrek ez du esan nahi zuhaitz horiek kendu egin behar direnik. Ez, zuhaitz horiek luzaroan iraun dezakete, baina jarraipena egin behar zaie, eta alde horretatik uste dut Udala zuzen ari dela, lehortuz doazen eta arriskua eragin lezaketen adaburuak moztuz, aldiro aldiro. Hori ulertu egin behar da, eta horrekin elkarbizitzen ikasi behar dugu.

Ildo horretan, herritarrei zuzendutako hitzaldi-tailer bat antolatzea proposatu diozue Udalari, ezta?

Bai, zuhaitzen zahartze prozesuaren zergatiak eta esanahia ezagutu eta ulertzeko. Bisita bat egingo genuke San Martin parkera bertara, hitzaldian azaldutakoa bertatik bertara ikusteko.

Azterlan honetako gauzarik inportanteena da, nire ustez, zuhaitz baten bizitza nolakoa den jakitea, eta San Martinen gertatzen ari dena jendeak ulertzea. Bestela, ezinezkoa da honelako pasealeku bat egoki kudeatzea, eta hartzen diren erabakiak edo neurriak ulertzea.

Zahartuz doan zuhaitz batek ehunka urte iraun dezake eta, beraz, onartu egin behar da zahartzen ari diren zuhaitzekin elkarbizi egin behar dugula. Ulertu behar dugu zahartzea ez dela gaixotasun bat, eta San Martin zuhaiztia beti izango dela, hein batean, zahartutako zuhaizti bat, eta horrekin bizi behar dugula, ez baitago beste alternatibarik.

Zuhaitzen batzuk bota beharrik ikusten al duzu?

Ez dut uste zuhaitzik kendu beharrik egongo denik. Kontuan hartu behar da, gainera, zuhaitz zaharrak eta usteldutako enborrak bizidun askorentzako janari, babesleku eta bizileku bihurtzen direla eta, beraz, funtzio inportantea betetzen dutela bioaniztasunaren alde. Onartu egin behar da ideia hori eta naturaltasunez bizi horrekin.

Bestalde, bai ikusten duguna da, zuhaitz batzuk landatzea komeni dela, lerrokadurak osatu eta arbolen arteko erritmoa jarraitzeko.

Eta lurzoruari dagokionean zer?

Zuhaitz pean dagoen lurzorua beti izan ohi da arazo iturri, zuhaizti guztietan. Argi gutxi sartzen denez, ez da belar geruza sendorik egoten, lurzorua biluzik geratzen da, eta horrek dakar lokatzak sortzea, higadura edo erosio arazoak... Hitz batean, lur geruza gero eta pobreago egotea.

Soluzio errazik ez daukan arazoa da. Horri aurre egiteko jarduketa proposamen batzuk egingo ditugu gure txostenean, eta, beharbada, lur galera ekiditera zuzendutako esku-hartze edo neurri konkreturen bat ere hartu beharko da puntu jakinen batean.

Beraz, ez duzu aurreikusten aparteko esku-

» Ulertu behar dugun aurreneko gauza da San Martingo zuhaitz kopuru inportante bat zahartzen ari dela, eta zahartze prozesu hori geldiezina eta atzeraezina dela

» Hitzaldi-tailer moduko bat egin nahi dugu, San Martinen gertatzen ari dena jendeak ulertzeko. Bestela ezinezkoa da honelako pasealeku bat egoki kudeatzea, eta hartzen diren neurriak ulertzea

» Zuhaitz pean dagoen lurzorua beti izan ohi da arazo iturri; argi gutxi sartzen da, zorua biluzik geratzen da, eta horrek dakar lokatza sortzea eta higadura arazoak

hartzerik egin beharko denik?
Ez, gauza puntual batzuk bai, lurzorua babesteko, baina interbentzio handirik ez.

Edozein modutan, uste dut une edo aukera egokia izan daitekeela pasealeku eder hau balioan jartzeko; merezi du zuhaiztiaren historia ezagutzea, herriarentzat altxor bat dela jabetzea, eta hortik abiatuta, zuhaiztiaren kontserbazioa bermatzeko erabaki zuhur eta zentzuzkoak hartzea.

Kirola egiteko toki aproposa ere bada San Martin, eta, ildo horretan, korrika egiteko bidexka bat egokitzea eskatu dute zenbait herritarrek. Bateragarri edo egoki ikusten al dituzu halako jarduketak?
Izan daiteke bateragarria, puntu bateraino. Kirola egiteko leku oso atsegina da San Martin, jakina, baina ez dut uste korrika egiteko leku bakarra denik herrian. Breaz, aztertu eta baloratu egin beharko da bere momentuan, halako azpiegitura edo esku-hartze bat egiteko adinako eskaera dagoen ala ez.

Garbi dago, lurzoruan instalazio finko bat (bidea, pabimentazioa...) eskatzen duten esku-hartzeek ez diotela inolako mesederik egingo, ez lurzoruari, ezta sustraiei ere. Zenbat eta gutxiago ukitu lurzorua beherantz, hobe. Garbi izan behar dugu, lurzoruan ipintzen den edozein instalaziok narriadura edo zahartze bat izango duela, nahitaez, eta hori arazo iturri bihur liteke. Esan nahi dudana da, edozein interbentziok konpromiso bat dakarrela berarekin.

Proposamen zehatzik egin behar al duzue ildo horretan, aukera tekniko eta materialei dagokienez?
Gure konpromisoa da San Martingo zuhaiztiaren inguruan zeresana duten herriko talde eta eragile ezberdinekin berba egitea, eta herritarren artean dauden sentsibilitate ezberdinak jaso eta Udalari helaraztea.

Guretzat oso arriskutsua da, kanpotik etorrita, proposamen zehatza egitea. Batzuekin eta besteekin berba egingo dugu, baina guk ez dakit eskaera jakin baten atzean zenbat jende dagoen, eta herrian nahikoa zabalduta dagoen eskaria ote den. Hori Udalarekin batera aztertu eta baloratu beharko dugu.

Argiteria jartzea ere eskatzen dute zenbait herritarrek.
Gauza bera esango dizut; alegia, aztertu eta eztabaidatu beharreko gauza bat izango da zenbaterainokoa den beharra eta eskaria.

Edozein modutan, San Martingo flora eta faunari kalte gutxien eragingo liokeen soluzio bat izan beharko litzateke. Baina, beti ere, zentzuz jokatuta. Parke honen inguruan dauden proposamenak jaso, baretu eta baloratu egin beharko dira: zentzuzkoak ote diren, zein ondorio ekar dezaketen, mantenua, zer etorkizun duten...

Ezer gehitu nahi al duzu?
Gure helburua da San Martin zuhaiztiaren inguruan dauden helburu eta sentsibilitate ezberdinak jaso, eta ahalik eta babes eta adostasun maila handiena izango duen kudeaketa plan bat diseinatzea, zuhaiztiaren kontserbazioa helburu izanik. Guk ez dugu soluziorik ekarriko kanpotik; herritarrekin batera eta herriarentzat lan egitea da helburua. ■

San Martin zuhaiztiaren inguruan zeresana duten taldeekin bilduko gara, sentsibilitate ezberdinak jasotzeko, eta teknikoki dauden aukera eta mugen berri emateko

Pasealekurik ederrenetako bat

XVIII. gizaldiaren bigarren erdikoak dira San Martin zuhaiztiari buruz aurkitu ditugun aipamen zaharrenak. Hala, Tomás López Vargas-Machuca (1730-1802) geografo eta kartografo espainiarrak Oñatiri buruz idatzi zuen txostenean aipamen berezia egiten zaio: "*Tiene varios paseos agradables, y entre ellos merece especial atención el que se llama de San Martin, situado en una pequeña eminencia, casi dentro de la misma villa, y que la domina con cinco calles de árboles formados á cordel en la extension de cerca de 400 pasos de largo, que le hacen en gran manera agradable*".

Udal artxibategiko aktetan ere ugariak dira San Martin pasealekuari buruzko aipamenak 1781tik aurrera. Artxibozainak eskuratu dizkigun akta-agirietan argi ikusten da historian zehar beti egon dela San Martingo zuhaiztiaren inguruko ardura eta kezka herrian. Ugariak dira bertako zuahitzen inausketa, landaketa edo aprobetxamenduen inguruko erabakiak. Ganaduaren bazkaleku izateko eskaerak ere ikus daiteke,

Udal artxiboko argazki zahar honetan herritar talde bat ageri da dantzan San Martin zuhaiztian

eta, kontrara, ganaduaren eta bertatik igarotzen diren mota guztietako gurdien ondorioz pasealekuak duen egoera txarraren inguruko kezka eta kexuak ere bai.

Garai batean, San Martingo pasealekuaren aprobetxamendua, zaintza eta kontserbazioa enkante publikora ateratzen zela ere ikus daiteke (1910ean, adibidez, Angel Muruari esleitzen zaio urteko 47 pezetaren truke). Zuhaitzen eta lurzoruaren egoera hobetzeko hainbat akordio ere azaltzen dira, eta jarleku berriak egiteko erabakia ere irakur daiteke 1888ko maiatzean. Alhondigatik ateratako harria erabili zuten.

Garbi dago, beraz, San Martingo pasealekua eta bertako ermita ederra oso presente egon dela oñatiarren bizitzan, eta ugari direla garai ezberdinetan bertan ospatu izan diren jaialdi, erromeria, prozesio, kirol ekitaldi (bola-jokua, ziklo-krosa, krosa, futbola) eta bestelakoak.

Eskuturreko horiak elkartasun ikur

Sentsibilizazio kanpaina berria jarri du abian Hotz-Oñatik. ▸ **Aita Mari** ontziak erreskatatzen dituen etorkinentzako **duintasun kit**-ak bidaltzea da helburua. ▸ 5€-ko ekarpen bakoitzaren truke **pultsera hori** bat jasoko dugu

Itsas Salbamendu Humanitarioa GKEaren *Aita Mari* ontziarekin kolaboratzea da Hotz-Oñatik, Mondragon Unibertsitateko myGADE graduko 2. mailako ikasleen laguntzarekin antolatu duen kanpainaren helburua. Zehazki, Aita Mari ontziak Mediterraneoan erreskatatzen dituen etorkinentzako duintasun kit edo motxilak bidaltzea da helburua, itsasontzira igo eta dutxa bat hartu ondoren, gutxienez arropa lehorra izan dezaten janzteko.

Hiru urte daramatza Hotz-Oñatik Aita Mari ontziarekin kolaboratzen, baina oraingo honetan herri osora zabaldu nahi izan du kanpaina, lan hori ikusarazi eta, bide batez, herritarren artean sentsibilizazio lana egiteko asmoz.

Hala, salbamendu-gerriko bat eta Gabonetako apaingarria irudikatzen duen beheko irudia ikusten dugun denda, taberna eta zerbitzuetan 5€-ko ekarpenak egin ahal izango ditugu, eta batutako diruarekin ahalik eta kit solidario gehien prestatuko ditu Hotz-Oñatik. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Kirrin dendari (erakusleihoa uzteagatik) eta Natrari (kit-erako barra energetikoak emateagatik), eta dei egiten diete herritarrei parte hartzera.

PENA LITZATEKE GUTXI EGIN DEZAKEZULA USTE IZATEAGATIK, EZER EZ EGITEA!

EKARPENAK NON
Sarreran ikur hau duten denda, taberna eta zerbitzuetan egin ahal izango ditugu 5€-ko ekarpenak

KIT SOLIDARIOA
Txandala, kamiseta, oinetakoak, barruko arropa, toalla, hortzetako pasta, eskuilla eta barra energetikoa darama kit bakoitzak, eta 15€ balio du

Hotz-Oñatirekin batera, Mondragon Unibertsitateko myGADE graduko ikasle talde bat ari da kanpaina antolatzen

Sareta metalikoak, errekara zaborrik ez erortzeko

Udalak urteak daramatza errekak eta ekosistemak zaindu eta berreskuratzeko ahaleginean. Gogoratu behar da 1996 eta 2010 bitartean ur zikinak batzeko saneamendu sarea egokitu zela herriko landa-auzo gehienetan.

Bestalde, 2009an, udalak kontratatutako 20 lagunek herriguneko erreka zatia oso-osorik garbitu zuten zazpi egunez, eta, orduz geroztik, erreka tarte ezberdinak garbitu izan dira urtero, herritarren artean egindako auzolan deialdien bitartez, *Ibailagun* jardunaldien baitan.

Ekimen horrek oso emaitza positiboak izan ditu eta, horri esker, gaur egun errekan ez da bolumen handiko zakarrik ikusten. Hala ere, haizeak barreiatutako plastiko eta bolumen txikiko bestelako hondakin askok errekan amaitzen dute urtero, eta arazo horri aurre egiteko asmoz, erreka bazterretako baranden barrenean sareta metalikoa jartzea erabaki du Udalak.

PLASTIKOAK OZEANORA

Oceana erakundeak argitaratu duen txosten baten arabera, espainiar estatuak 120 tona hondakin transferitzen ditu egunero itsasora, eta bertan amaitzen duten plastikoen %80 lehorretik datoz, eta ibaiak dira lurralde barruko plastikoak itsasorantz garraiatzen dituztenak.

Ibai eta erreketara iristen diren zaborren iturburu edo foku nagusiak berriz, hauek izaten dira: hiriguneetan egiten diren jarduera intentsiboak (merkatuak, festak, terrazak...), erreka inguruetan dauden paperontzi eta edukiontziak, ibaien ondoan dauden aparkalekuak, eta industria edo enpresa poligonoetako jarduerak.

Beraz, hori guztiori kontuan hartuz, erreka inguruetan dauden barandetan itxitura edo babesa jartzea erabaki du Udalak, lehorrean saka-

» Oraingoz herriguneko erreka tarteetako barandak babestu dira (417 metro lineal), eta hurrengo urteetan Olakua, San Lorentzo, Ugarkalde, Kasablanka eta industriagune ezberdinetakoak babesteko asmoa dago

banatuta dauden zaborrak errekara ez erotzeko.

FASE EZBERDINAK

Babestu beharreko barandek hedadura handia hartzen dutela kontuan hartuz, egitasmoa faseka egitea aurreikusten du Udalak.

Aurreneko ekinaldi honetan herriguneko zonaldeak lehenetsi dira, jende gehien ibiltzen den lekuak direlako, eta bistarago gelditzen diren guneak izanik, kontzientziazio mailan eragin handiagoa dutelako. Baina hurrengo urteetan, Olakua, San Lorentzo, Ugarkalde, Kasablanka eta industriaguneetako erreka inguruak babesteko asmoa ere badu Udalak.

Aurten 12.387 euro (BEZ barne) bideratu ditu (6.226 euroko dirulaguntza jaso du Foru Aldunditik) herriguneko barandetan sareta metalikoa jarri eta Olakuako 13 zenbakidun atariaren atzealdean dagoen zintzilikario gunea babesteko lanetara. ■

Olakuako esekitoki gune bat ere babestu du Udalak

Hondakinak gaika biltzeko esekitoki gune bat baino gehiago babestu izan du Udalak lehenago ere, haizeak gogor jotzen duen tokietan. Eta aurrerantzean ere erreka inguruetan dauden guneak babesteko asmoa du, zaborrak errekara ez erortzeko abian jarri duen plangintzaren baitan. Lehengo fase honetan, Olakua auzuneko 13 zenbakiaren atzealdeko gunea babestea erabaki da, itxitura metaliko batekin inguratuz, argazkian ikusten den moduan. Poliki poliki, erreka kontran dauden zintzilikario gune guztiak babesteko asmoa du Udalak.

Erreka garbiketa auzolanean

Aurtengo erreka garbiketa ekinaldian ateratako zaborra

Azken hamar urteotan erreka tarte ezberdinak garbitu izan dira herritarren artean egindako auzolan deialdien bitartez, *Ibailagun* jardunaldien baitan. Oso emaitza positiboak izan ditu ekimen horrek, horri esker gaur egun ia ez baita ikusten bolumen handiko zaborrik errekan. Hala ere, oraindik garbiketak eta kontzientziazio lana egiten jarraitu beharra dago. Argazkian ikus daiteke aurtengo garbiketan errekatik ateratako zabor pila.

Mekalki S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak
Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

COINBROKER OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA
ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS

89 EKINTZA

Oñatin turismo jasangarria eta inklusiboa garatzeko

Hurrengo lau urteetan turismoa garatzeko **Ekintza Plana** onartu du Udalak

EKINTZA PLANA

Goiko QRa eskaneatuta, Oñatiko Turismo Plan Estrategikoaren baitan diseinatu den Ekintza Planean jasotako proposamen guztiak ikusteko aukera dago

Ikerne Altube, turismo teknikaria, Xabier Igartua, zinegotzia, eta Lurdes Romano, Beinke aholkularitzako burua, Ekintza Planaren aurkezpen ekitaldian

Hogeita hamar urte luze igaro dira Oñatiko Udalak turismoa sustatzeari ekin zionetik eta urte hauetan zehar lan handia egin da, bai Udalaren aldetik eta baita sektoreko eragile eta profesionalen aldetik ere, Oñati erreferente bilakatzeraino barnealdeko turismoaren arloan.

Hala ere, oraindik badago zertan hobetu, eta asmo horrekin erabaki du Udalak datozen urteetarako Plan Estrategikoa diseinatzea. Azkenengo plana 2010ekoa zen, eta orduz geroztik sektoreak aldaketa handiak bizi izan dituela kontuan hartuz, turismo plana eguneratzeko unea zela erabaki zuen udal gobernu taldeak agintaldi hasieran.

Bost ardatzetan antolatuta dago Ekintza Plana, eta lehentasunaren arabera sailkatu dituzte ekintza guztiak, 2021-2025 artean garatuz joateko

Horretarako, Lurdes Romano oñatiarrak zuzentzen duen *Beinke* aholkularitza enpresa kontratatu zuen, eta Oñatiko turismoaren gaur egungo egoera aztertu eta diagnostikoa egin ondoren, berau garatzeko Ekintza Plana diseinatu du orain, bost ardatzetan (Gobernantza, Gune turistikoa, Produktua, Marketina eta Kode etikoa) banatuta eta lehentasu mailaren arabera antolatuta. Hurrengo lau urteetan (2021-2025) jarraitu beharreko bide-orria izango da, kontuan hartuz betiere, turismo jasangarria eta inklusiboa garatzea dela helburua.

Urte askotan zuekin
688 764 299
Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es
Jaione San Miguel Ugarte
MAPFRE
OÑATI

Ekintza Plana (LABURPENA)

GOBERNANTZA ETA KUDEAKETA

- Eskualdeko turismoaren erakunde arduraduna den neurrian, Oñatik Debagoieneko Turismo Mahaian duen partaidetza kudeatzea. Helburu hitzartu batzuen araberako lan dinamika bat eskatzea. Udal proiektuak eskualdeko estrategian eta diru-laguntza eskaeretan txertatzea.
- Udalerriaz gaindiko beste eragile eta erakunde batzuekin: Foru Aldundia (Aizkorriko natur parkea, artxiboak, Arantzazu...), Eusko Jaurlaritza (Basquetour, Itourbask...), Arantzazu Lab, Lege Soziologia Institutua, Lurpea, Natur Eskola, AMET...
- Turismoaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko plana garatu.

GUNE TURISTIKOA

- Turismo-informazioaren sistema, edukia eta hedapena eguneratzea eta egokitzea gero eta teknologikoagoa den eskari baten formatu eta euskarri berrietara.
- Pertsonen fluxuak, erreserbak eta sarbideak diseinatzea eta kudeatzea sistema teknologikoak, sarbideak eta aforoak kontrolatzeko tresnak ezarriz. (TAH / Turismo Adimenduaren Helmuga).
- San Prudentzioko autobus geltokiko zerbitzuak eta haren itxura hobetzea.
- Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuaren maiztasuna areagotzeko aukera baloratzea
- Oñati eskualdearekin eta EAEko hiriburuekin lotzen duen garraio publikoaren maiztasuna areagotzea.
- Oñatira sartzeko norabide-seinaleztapena eta seinaleztapen turistikoa (aparkalekuak, Arrikrutz, Aitzulo, Parketxea...) hobetzea.
- Sarbidea kontrolatzeko sistema bat instalatzea Arantzazun, Jaturaben, Sandailin eta Aitzulon, urte sasoi jakin batzuetan, mugikortasun jasangarria bultzatuz.
- Disuasio-aparkalekuak prestatzea urteko sasoi batzuetan, eta bisitari gehien dituzten lekuen sarrerekin (Arantzazu, Arrikrutz...) lotzea.
- Baliabide turistiko batzuetako irisgarritasuna hobetzea; adibidez, Sancti Spiritus unibertsitatean
- QR kodeak eta (NVDA) Non Visual Desktop Access kodeak sartzea off- zein on-line informazio euskarrietan.

TURISMO-ESKAINTZAREN ETA PRODUKTUAREN HOBEKUNTZA ETA GARAPENA

- Sancti Spiritus unibertsitatea zaharberritzeko eta musealizatzeko plana gauzatzea: Zuazolaren altxorra eta liburutegia, artxiboak...
- Kontakizun eta formatu berriak diseinatzea (3D teknologia, bisita birtualak...) bisita gidatuetarako.
- 'Ignaziotar Bidea' programan posizionatzea.
- Baserri mundua eta bertako ondarea landatarra, etnografikoa, paisajistikoa... integratzea eskaintzan.
- Industria-paisaiari balioa ematea, argindarraren ekoizpenari lotutako funtsezko elementuak txertatuz: errotak, kanalak, jauziak, turbinak eta, bereziki, Jaturabeko zentrala.
- Urteko garai jakin batzuetan Olateko zentralean bisita gidatuak programatzeko aukera baloratzea.
- Oñati Aizkorriko parke naturaleko sarrera nagusi gisa indartzea
- Aktibitate- eta natura-turismoko produktuak sustatzea: mendi ibilaldiak, bizikleta ibilaldiak...
- Oñati inguruko Ibilbideen presentzia eguneratzea Wikiloc aplikazioan.
- Oñati - San Prudentzio arteko Vasco-Navarro adarra seinaleztatzea.
- Aldi baterako (Astea Santua, zubiak...) turismo jardueren programa diseinatzea
- Esperientzia eta jarduera enogastronomikoak diseinatzea (txakolina), Txokolatearekin eta KmO-ko produktuen (gazta...) eskaintzarekin konbinatuz.
- Tokiko produktuak berreskuratzea: erromes pastela, Oñatiko pitxertxoak...
- Turismo profesionala eta industriala garatzea eta balio-kate turistikoan txertatzea
- MICE (Meeting, Incentives, Conferenging and Exhibitions) turismoa garatzeko programa
- Kirola, artea, ikerketa, euskara, teknologia... arloko topaketak antolatzea, Arantzazu Gaur-ekin elkarlanean. Biltzarkideen pack bat garatzea, turismo osagaiekin.
- Familia-turismoaren arloan posizionatzea eta produktuak eskari horretara egokitzea.
- Oñati txokolatearen herriari buruzko ekitaldi handi baten antolaketa bultzatzea (dastaketak, hitzaldiak, erakusketak...)

MARKETIN TURISTIKOA

- Oñatiko turismoaren marka diseinatzea eta ekimen guztietan irudi homogeneoa eta ezaguna erabiltzea.
- Bisitatzen gaituzten pertsonei inkestak egitea udalerriko hainbat lekutan: Oñati eta Arantzazuko turismo bulegoetan, Arrikrutzen, Txokolateixan...
- Industria-sektoreari eta MICEri zuzendutako sustapen euskarriak diseinatzea.
- Oñati sustatzeko argazki eta bideo-pilulen lehiaketa egitea herritarren artean.
- Oñati merkaturatzen laguntzeko, bitartekari eta preskriptoreei zuzendutako bisita teknikoak
- Komunikazio-estrategia bat diseinatzea.

LEHIAKORTASUNA, BERRIKUNTZA ETA ENPRESA GARAPENA

- Helmuga Turistiko Adimendua (Destino de Turismo Inteligente) egiaztagiria lortzeko eskakizunak aztertu eta garatzea.

» Sancti Spiritus unibertsitatea zaharberritzeko eta musealizatzeko plana gauzatzea: Zuazolaren altxorra eta liburutegia, artxiboak...

» Kontakizun eta formatu berriak diseinatzea (3D teknologia, bisita birtualak...) bisita gidatuetarako.

» Pertsonen fluxuak, erreserbak eta sarbideak diseinatzea eta kudeatzea sistema teknologikoen bidez, sarbideak eta aforoak kontrolatzeko tresnak ezarriz

» 'Oñati, txokolatearen herria'-ri buruzko ekitaldi handi baten antolaketa bultzatzea (dastaketak, hitzaldiak, erakusketak...)

» Turismo profesionala eta industriala garatzea eta balio-kate turistikoan txertatzea

» Oñatiko turismoaren marka diseinatzea eta ekimen guztietan irudi homogeneoa eta ezaguna erabiltzea

» *Helmuga Turistiko Adimendua* egiaztagiria lortzeko eskakizunak aztertu eta garatzea

EGIN SALEROSKETAK EUSKARAZ, ETA IRABAZI 100€-KO SARIA

Oñatiko Udalak bat egin du Eusko Jaurlaritzak eta UEMAk (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) antolatu duten 'ESKATU-ESKAINI EUSKARAZ' kanpainarekin. Herriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan euskararen erabilera sustatzea da kanpainaren helburua; lehen hitza euskaraz egitea eta, ahal dela, salerosketak euskaraz egitea. Euskaraz eskatu eta eskaintzea.

ZOZKETAN PARTE HARTU

Oñatiko Udalak, gainera, urrats bat harago joan nahi izan du eta zozketa bat ere antolatu du. Zozketan parte hartzeko zera egin behar da: herriko merkataritza edo ostalaritza establezimendu batean salerosketa euskaraz egin. Bezeroa eta saltzailea agertzen diren argazki bat atera eta **'Egin tratua euskaraz': 688 621 142** zenbakira *whatsapp* bidez bidali (establezimenduaren eta protagonista baten izena adieraziz) **abenduaren 10a** baino lehen. Jasotako argazkien artean 100 euroko balioa duten sei sari zozketatuko ditu Udalak abenduaren 13an.

SARIAK

Udalak 100 euroko balio duen produktu-sorta erosiko dio saritua izan den establezimenduari eta, ondoren, argazkian agertzen den bezeroari emango dio. Hala bientzat izango da saria, bai eroslearentzat eta baita establezimenduarentzat ere. Gogoratu, **eskatu eta eskaini, euskaraz!**

Appa hi!

Oñatiko hika ikasteko aplikazioa aurkeztu dute

Deskargatu mugikorrera, dohainik, eta ikasi hika berba egiten bost astetan, jolasaren bidez

Eskuko telefonoaren bidez, 35 egunetan hika oñatieraz berba egiten ikasteko aplikazioa da **Appa hi!**. **Egunero pilula bat** jasoko dugu mugikorrean. Marrazkiz (Arantzazu Sagarzazurenak) eta bideoz lagundutako azalpen labur bat ikusiko dugu aurrena, eta, ondoren, azalpenekin lotutako galdera-sorta (**partida**). Galdera guztiei zuzen erantzunez gero, hurrengo egunean beste pilula bat egiteko aukera izango dugu. Bestela, berriro saiatu daiteke, nahi beste aldiz, galderei zuzen erantzun arte. Astero errepaso bat egongo da, eta maila bat igotzeko aukera. Guztira **bost maila** dira gainditu beharrekoak, aste bakoitzeko bat. Bakoitzak bere erritmora egin dezake prozesua.

Ingo Xonau! proiektua koordinatzen duen Badihardugu elkarteak eta *Cosedyntax* enpresak ('Egunean behin' aplikazioaren sortzaileak) prestatu dute **Appa hi!** aplikazioa, Oñatiko Udalaren eta foru Aldundiaren laguntzarekin. Jolasaren bidez, ia konturatu gabe, hitanoaren oinarriak ikasteko aukera ematen du. Oinarri teorikoak eskaintzen ditu, baina ikasketa prozesuaren funtsa galdera-erantzun estiloko jokoa da.

▲ Appa hi! aplikazioa doakoa da eta *Android* zein *iPhone* gailuetarako egokituta dago

HIKA-TRIKI-POTEOA. Musika eskolako trikitilariek girotuta, Hika-triki-poteoa egingo da abenduaren 5ean, Boga tabernan (12:00) hasita. Tabernaz taberna, hika praktikatzeko jolasak egingo dituzte. Animatu! Ipini paparrean '**Ingo xonau! Ingo xuau!**' txapa paparrean eta egin berba hika, lotsatu barik.

'Haurren aurrean helduak heldu' ARIKETA SOZIALA

Euskaltzaleen Topaguneak antolatu duen ***Haurren aurrean, helduok heldu*** ekimenarekin bat egin du Oñatiko Udalak. Umeentzat erreferente diren pertsona helduen hizkuntza portaeretan eragin eta euskararen erabilera areagotzea du helburu. Beraz, 0-12 urte arteko haurren inguruan ibiltzen diren helduei (parkeetan, plazetan, ikastetxe atarietan...) gogoeta egitea eta, ahal den guztietan, euskaraz berba egitea eskatzen zaie.

Presoen eskubideen alde Gabonetan egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu du SAREk



ABENDUAK 18

• **SARE, oñatiarrei entzuten**
SAREko kideek jendeak nola ikusten dituen jakin nahi dute, jendearengandik gertu egon nahi dute, eta asmo horrekin ordubeteko saioa antolatu dute, Eltzian, 11:00etan. Kafea beraiek ipiniko dute.

• **Argazkia**
Urtarrilaren 8ko manifestaziora begira talde argazkia aterako dute 12:30etan.

ABENDUAK 31

• **Elkarretaratzea**
Preso eta iheslarien eskubideen aldeko urteko azken elkarretaratzea egingo da herriko plazan, 19:00etan.

URTARRILAK 8

• **Manifestazioa**
'Elkarbizitzarako, bakerako, etxerako' lelopean, Bilbon (17:00) egingo den manifestaziora joateko deia luzatzen du SAREk. Autobusak antolatuko dira Oñatitik.

Udazkenean familia-turismoa Oñatin

ABENDUAK 5

• **'Arantzazu inguruko paisaiak' txango gidatua**
Aizkorri-Aratz natur parkearen ondare natural eta kulturala ezagutzeko ibilaldia, Arantzazuko ibilbide irisgarrian zehar Parketxearen eskutik (11:00). **Dohainik.** (Erreserbak: 943 79 64 63)

ABENDUAK 6

• **'Arantzazuko altxorren bila' orientazio jolasa**
Parketxeak antolatuta. Mapa eskutan, Arantzazuko ibilbide irisgarrian gordetako altxorren bila ibiliko gara familia giroan (11:00). **Dohainik.** (Erreserbak: 943 79 64 63)

ABENDUAK 6 ETA 8

• **'Txokolatea gustoko'** Txokolatea nola egiten den, berau sustatzeko erabili izan diren sistema ezberdinak (kromoak, irudiak...) eta txokolatea dastatzeko aukera. Txokolateixan (12:00). **Dohainik.** (Erreserbak: 943 79 64 63).

ABENDUAK 11 ETA 12

• **'Bizi zaldiak Pottokalekun, trostan familian!'**
Zaldien mundua ezagutzeaz gain, pottoka zaldi autoktonoaren ezaugarriak eta ohiturak ezagutzeko aukera Pottokalekun. Hilaren 11n (15:30) eta 12an (12:00). **Dohainik.** (Erreserbak: 943 79 64 63).

ABENDUAK 6 ETA 26

• **'Lehoiak Oñatin'** Arrikrutzen duela 55 urte aurkitu zuten lehoiaren hezuduraren harira antolatutako tailerrak: Arrikrutzeko koban (12:00) eta turismo bulegoan (16:30). **Doan**. (Erreserbak: 943 79 64 63).

ABENDUAK 4 (15:00) **ETA 19** (10:30)

• **'Espeleo-Txiki Arrikrutzen'** Ohiko pasarelaz kanpo egiten den irteera berezia. Sei urtetik gorako haurrentzat, heldu batek lagunduta, (20€ / pertsonako). (Erreserbak: 943 08 20 00).

Kiroldegiko bazkide txartelaren inguruko oharra

KIROL TXARTELean aldaketaren bat egin nahi duten herritarrek, edo hobariren bat dagokiola uste dutenek **abenduaren 15etik** aurrera eskatu beharko dute kiroldegian

Urte berriarekin batera, kiroldegiko KIROL TXARTELA berritzeko unea iritsi da, eta kontuan hartuta abonuen prezioetan igoera egongo dela, Udalak gogorarazi nahi du hobari-lerro bat ezarri duela, gehien behar duten pertsonei zuzenduta, igoera horren inpaktua arindu eta herritarrei kirola egiten jarraitzeko erraztasunak emateko helburuarekin.

Datorren urteko abonuen estrukturan norbanako nahiz elkarbizitza unitatearen aukerak egoten jarraitzen dute, baina herritarren egoeraren arabera (langile, pentsionista, langabetu, alargun, banandu, jubilatu...) ezberdindu barik, errenta mailaren eta elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren araberako hobariak planteatu dira, behar handiena dutenek jaso dezaten hobari bidezko laguntza.

ALDAKETAK ETA HOBARI ESKAERAK

Datorren urtera begira KIROL TXARTELean aldaketaren bat egin nahi duten herritarrek, edo hobariren bat (diru-sarrerengatik edo familiako kideen kopuruagatik) jasotzea dagokiela uste duten bazkideek Zubikoa kiroldegian egin behar dute eskaera **abenduaren 15etik** aurrera. KIROL TXARTELean aldaketarik egin nahi ez duten herritarrei automatikoki aplikatuko zaie dagokien tasa.

MOTZEAN

Bixente Urrutiak zinegotzi kargua utzi du eta Karmelo Guridik hartuko du bere lekua

Arrazoi pertsonalak tarteko, zinegotzi kargua uztea erabaki du Bixente Urrutiak. Azaroaren 27ko osoko bilkuran egin zen ofizial ukoa, eta Urrutiak eskerrak eman zizkien korporazioko kideei, udal langileei, auzo alkateei eta herritar guztiei. Izaro Elorza alkateak ere esker oneko hitzak eskaini zizkion, ual jardunean Urrutiak erakutsi duen konpromisoa azpimarratuz. Oroigarri bat ere oparitu zioten, bertso batekin. Karmelo Guridi Gallastegik beteko du Urrutiak utzitako lekua.

Selma Huxley ikerketa bekara proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 4ra arte luzatuko da

Oñatiko emakumeek herriari egindako ekarpena balioan jartzea da bekaren helburua, kontatu gabeko historia argitara eman eta emakumeei zor zaien aitortza egiteko. Bekak 17.400 euroko dotazioa du eta lana burutzeko 18 hilabeteko epea egongo da. Udalaren webgunean daude ikusgai oinarri guztiak (www.oñati.eus/tramiteak/bekak).

Negozio ideia bat martxan jarri nahi duten pertsonei zuzendutako programa jarri du abian Mankomunitateak

Unibertsitate titulua edo LHko goi-mailako zikloren bat duten pertsonei zuzenduta dago HAZILAN programaren edizio berri hau. Urtarrilaren 10etik otsailaren 11ra izango da, eta abenduaren 17a baino lehen eman behar da izena. Informazioa: *www.debagoiena.eus*.

Kiroldegiko bazkide kuoten igoera neurriz kanpokoa dela uste du EAJk

2022ko Zerga Ordenantzarekin batera, kiroldegiko abonuak berrantolatzea ere onartu zuen udalbatzak (EAJren aurkako botoz) urriko osoko bilkuran, eta berrantolaketa horrek kiroldegiko bazkide kuotetan ekarriko duen prezioen igoera kasu batzuetan neurriz kanpokoa dela adierazi du EAJren udal taldeak. "Adibidez" azaldu dute jeltzaleek, "pentsiodun edo erretiratu batek 78,40€ ordaindu du aurten, eta 180€ ordaintzera iritsi daiteke (inolako hobaririk izan ezean) 2022an. Bi heldu eta bi seme-alabez (-21 urte) osatutako familia batek 231,15€ ordaindu du aurten, eta 378€ ordainduko du 2022an (12-15 urte arteko seme-alabak badira) ".

BAREMO ETA HOBARI DESEGOKIAK

Datorren urtetik aurrera bazkideen errenta hartuko da kontuan hobariak aplikatzeko orduan, eta horrekin ados dago EAJ, baina horretarako erabiliko diren baremoak eta aplikatuko diren hobariak ez datoz bat Oñatiko errenten errealitatearekin, jeltzaleen ustez; "oñatiarren bataz besteko errenta 25.880€-koa da (EUSTATen arabera), eta hori kontuan izanik, herritar gehienek ez dute hobaririk jasoko, edo hobari oso txikia izango dute, eta horrek kuotaren igoera handia ekarriko du".

Udalak inbertsio handia egin behar izan du kiroldegia berritzen, baina EAJren ustez horrek ez du eraginik izan behar erabiltzaileengan, eta gutxiago abonuen neurriz kanpoko igoeran. "Uste dugu akats bat dela tasak handitzea. Uste dugu urtebete igaro behar dela kiroldegi berriaren ustiapenaren kostuen inguruko datu objektiboak eduki arte".

Erreusak edo Oñatiko Ondarearen Bilduma Bateratua

Erreusen artean pasa dugu urtea Gure Bazterrak Kultur Elkartean. Urtarrilean ekin genion proiektua idazteari, Oñatiko Udalaren Kultura Sailaren Etnografiarako dirulaguntza lortu asmoz. Martxoa-maiatza bitartean urte osoko plangintza egin eta egitarauari forma eman genion, ekaineko hitzaldiak eta udaldiko landa-lana antolatuz: hizlariak lotu, datuen bilketarako fitxak eta materiala prestatu, interesguneetako jabeekin hitz egin, bolondresak lortu, bilerak, egutegia zehaztu, etab. Uztaila eta abuztua hilabete potenteak izan dira; talde txikietan antolatuta auzoz auzo, batetik bestera, fitxa batzuk han, elkarrizketa bat hemen, argazkiak hor, hau ikusi, bestea entzun, hura jaso… Irailerako gurdikada bat datu, istorio eta argazki geneuzkan zuritu, aletu eta txukuntzeko eta, horretan joan zaigu udazkena.

Guztira 50 laguneko boluntario taldeak hartu du parte eta euren etxe, txoko, ezagutza eta oroitzapenen ateak ireki dizkiguten hamaika herritarren borondateari esker, bilduma txukuna osatu dugu; antzinako bizimoduen lekuko diren 1540 objektu aztertu eta 30 elkarrizketa baino gehiago grabatu ditugu herriko 78 baserri eta esku-lantegi zahar ezberdinetan:

Trikítrakuak, kriskétaak, zimítza, zurríxaria, zapóabarkak, sumítza, gelátzua, kortálohixa, erlápotorra, tximíntxia, galápaizak, dornúaia, isúskixa, sítza, múrkua, trállaak, isíl-poltzan gordetako hitzak, bizípenak, hazípenak, bizitzak.

Informazio guztia **Oñatiko Ondarearen Bilduma Bateratua** deituriko datu-base digitalean jaso dugu. Hori da gure aurtengo uzta.

Desagertutako ohituren hondarrak eta desagertzear daudenen are-aleak dira gure ondarea, baina erraustu edo zaborretara botatzea baino zeregin hoberik bada oraindik; gaur-gaurkoak diren hainbat konturen inguruan zer pentsatua eman digute guri behintzat. Kriseilutxo bat piztu da, antza.

Orain, herriarekin zorretan gaude; jasotakoa honi "itzuli" egin nahi diogu eta horixe izango da, hain zuzen, datorren urteko lanetako bat. Ideia eta proposamen ezberdin asko jaso ditugu (erakusketa, liburua, irteerak, hitzaldiak, tailerrak …) eta datozen hilabeteetan, politto-politto, emango diogu forma politen bat.

Bi mila esker denoi!

Gure Bazterrak K.E. eta Erreusak egitasmoko lantaldea. (Ane Ugarte Garitaonaindia, Iñaki Urizar Markuleta, Jone Arrazola Maiztegi, Beñat Ugalde Urkiola, Beñat Agirrebengoa Lizarralde, Ander Lizarralde Lizarralde, Jon Aiastui Zabaleta, Klara Lopez de Larruzea Lobo, Naiara Fernandez Castro eta Arantzazu Sagarzazu Sacristán).

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
• Administrazioa • Haziendarekin
• Informazioa • Trafikorekin
• Salmenta • Herentziak, eta abar
Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK
• Era guztietako garbiketak
• Jabegoen eta elkarteen administrazioa
• Konponketa orokorrak
GAKO
Garbitasunaren usaina
653 70 45 47
Oñati

XIV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA ABIAN

▸ Udalak 1.500 emango ditu saritan. ▸ Sarietako bat herritarren botoek erabakiko dute aurten ere.

Andrea Azkoaga interioristak irabazi zuen lehen saria iaz. Kimu-Urtxin loradendarentzat izan zen bigarrena eta Barue interiorismo dendarentzat hirugarrena. Herritarren saria Kimu-Urtxinek eraman zuen

Udaleko Soziekonomia departamentuak XIV. Erakusleiho Lehiaketa antolatu du, TXANDA elkartearen laguntzarekin, herriko denda eta zerbitzu guztiei irekia.

Lehiaketan parte hartzen duten komertzioek abenduaren 7rako prest izan beharko dituzte erakusleihoak, eta hala mantendu hilaren 31ra arte, gutxienez.

Erakusleihoan denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira, eta balorazioa egiteko orduan kontuan hartuko dira: konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna.

Udalak 1.500 euro emango ditu saritan. Lehenengo hirurak (500, 300 eta 200 eurokoak) erakusleiho-apainketa arloko adituz osatutako epaimahaiak erabakiko ditu. Herritarren sariaren (500 €) irabazlea bozketa bidez aukeratuko dute herritarrek. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Bozka emateko webgunean egongo dira ikusgai lehiaketan parte hartzen duten erakusleiho guztien argazkiak abenduaren 10etik aurrera. Abenduaren 17a (eguerdiko 14:00ak arte) izango da bozka emateko azken eguna.

HERRITARREN SARIA

Internetez soilik eman ahal izango dira 'Herritarren Saria' (500€) hautatzeko bozkak Udalaren webgunean (www.oñati.eus). Goiko QRak eramango zaituzte bozka emateko orrira, eta bertan egongo dira ikusgai abenduaren 10etik aurrera lehiaketan parte hartzen duten erakusleiho guztien argazki bana. **Abenduaren 17ko** eguerdiko 14:00ak baino lehen bozkatu behar da. Parte hartzen duten guztien artean **200 €**-ko saria zozkatuko da.

Gabonetan oparitu tokiko merkataritzan erabiltzeko **BONU TXARTELAK**

Udalaren deskontu kanpaina amaitu den arren, ***oñati.bonoak.eus*** aplikazioa berriz jarriko du martxan Udalak, Gabonetara begira herritarrei bertako saltokietan bonu txartelak erosteko aukera eskaintzeko. Bonuak erosteko orain arteko pauso berberak jarraitu behar dira. Saltokiak ***oñati.bonoak.eus*** web orrian egongo dira ikusgai, eta herritarrek bi bide izango dituzte bonuak eskuratzeko: Internet bidez ('Eskuratu Bonu Txartela' aktibo daukaten komertzioetan), edo saltokietan bertan zuzenean erosita.

Era honetara, Gabonetako opariak herrian egiteko beste aukera bat eskaini nahi du Udalak eta, bide batez, 'Erosteko orduan, nire lehen aukera Oñati' lemarekin bat egin eta ohikoa baino kontsumo handiagoa egiten den egun hauetan erosketak erantzukizunez egiteko gomendioa luzatu herritarrei, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak erabiltzera animatuz eta bertakoa babestuz.

Zuntza 600 Mb Simetriko | Mugikorra 7 GB + Dei mugagabeak + telefono finkoa + 1Gb-ko linea bat doan
IRAUNKORTASUNIK GABE
BETIRAKO 42 € HILEAN BEZa barne
2. etxebizitza Zuntza 600 Mb + finkoa 19 €
BANATZAILE BAIMENDUA
LIZKER INFORMATIKA
KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN
Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00
guuk
ZUNTZA MUGIKORRA TB
BEZa barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indanean Euskadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriek "Mugikorra Bakarrik" tarifako lineen prezioak izango dituzte, GB eta deietarako minutu kopuru berarekin, 1GB-ko doako Guuk tarifaren kasuan, prezio berria 6,9€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorren gehieneko kopurua 4 izango da, linea nagusia kontuan hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikor nazionaletarako dei mugagabeak, 7GB eta 40MB-eikin. Muga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s-ra jaitsiko da. Nahi duzunean eman diezaiokezu baja zerbitzuari, baina lideratzailea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 121€-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontsultatu gainerako baldintzak hemen: www.guuk.eus

18,7 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du gobernu taldeak 2022rako

2,6 milioi bideratuko dira inbertsioetara

18.749.843 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du EH Bilduren gobernu taldeak datorren urterako, aurtengoa baino %13 handiagoa. Udalen Finantzaketarako Foru Funtsan (%14,9) eta udal enpresen (Ur Jauziak, Oñargi...) dibidendoetan (%32) izandako igoerek ahalbidetu dute, hein handi batean, 2022ko aurrekontuak handitzea eta, ondorioz, herritarrei zuzendutako zerbitzuak mantentzea eta hobetzea.

Aurrekontu proposamen horren arabera, udalak 2.1 milioi euroko aurrezki arrunta izango du, eta 2,6 milioi bideratuko dira inbertsioetara. Hauen artean, honakoak azpimarra daitezke: **San Lorentzo** eta **Olakua**ko irisgarritasun lanekin jarraituko da (600m€), **Azkoagain**eko belar artifiziala berrituko da (360m€), **landa-auzoetako** inbertsioen partida (164m€) %14 handituko da, **Eguneko Zentro arina** deritzon zerbitzu berria sortuko da, helduentzako **Esperientzia Gela** martxan jarriko da, **adikzioen prebentziorako plana** egingo da.

Berdintasun saileko aurrekontua ere %3,5 igoko da, berdintasun planean jasotako ekintzak aurrera eramateko. Besteak beste, **zaintza** beharren eta baliabideen diagnostikoa egingo da. Urrutxun **atletismo** pista bat egokitzeko proiektua abian jarriko da, **haur parkeen** inguruko diagnostikoa egingo da eta **Partaidetzazko Aurrekontuen** prozesu berria ere jarriko da martxan.

Joan den astean oposizioko taldeari aurkeztu zion aurrekontu proposamena, eta abenduaren 16ko plenoan eztabaidatu eta onartuko dira 2022ko udal aurrekontuak.

Udalen autonomiari eraso egin nahi izatea egotzi dio EH Bilduk Jaurlaritzari

'Eusko Jaurlaritza aurrekaririk gabeko erasoa ari da planteatzen lurralde antolamenduaren eta udal autonomiaren aurka'. Horrela hasten da, Lurralde Antolamenduaren Legean EAJ eta PSE alderdiek egin nahi duten aldaketa salatzeko, EH Bilduk komunikabideetara igorri duen prentsa oharra. "Moldaketa horrekin, euren eremuan desegokitzat jotzen dituzten proiektuei mugak jartzeko aukera eta eskubidea galduko dute Udalek" gogorarazten du koalizioak.

"Herriko lurren antolaketa eta hirigintza udalen eskumen nagusietako bat da, herritarren partaidetzarekin eta udalbatzaren gehiengoarekin onartzen diren HAPOan (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) gauzatzen dena, eta arau berri honek Jaurlaritzaren asmoak HAPOaren gainetik jartzea ekarriko luke" ohartarazi du EH Bilduk. "Lege moldaketa honek aukera ematen dio Jaurlaritzari interes publiko goreneko proiektuak lurralde antolamenduaren gidalerroen gainetik jartzeko, eta, adibidez, nahikoa izango luke SHESAren Armentia putzua interes gorenekotzat jotzea, Gasteizen gas-proiektu hori aurrera eraman ahal izateko, udal planifikazioa urratu arren".

Aldaketa "atzeko atetik" egin izana egotzi dio Jaurlaritzari, "zuzenketa moduan aurkeztuta Gorka Urtaran buru duen EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) posizionatu beharra ekidin dutelako".

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

NII moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus

Oñatiko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Zuzendaria:
Iñigo Arregi
Publizitatea:
Aratz Losada
Diseinua eta Maketazioa:
Aratz Losada
Kolaboratzaileak:
Jerardo Elortza eta Euskaltegia
Inprimategia:
Gertu
Tirada:
5.500 ale
Lege gordailua:
SS-357/91

Posta-e:
kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea:
publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Argindar eta ur kontsumoa udal eraikinetan

Gorka Bikuña

Kultur etxera sartzen naizen bakoitzean, bertako instalazioek zer pentsatua ematen didate. Egia da urte batzuk badituela, baina berrikuntza batzuk egitea beharrezkoa ikusten dut, kontsumoari begirakoak. Batez ere komunetan ikusten dut arazoa, argia pizteko etengailuak ez dira automatikoak, eta bat baino gehiagori ahazten zaio itzaltzea irtetzen duenean. Berdina gertatzen da konketetako txorrotekin. Ez dut uste inbertsio handia suposatuko duenik aldaketa hau gauzatzeak, eta aurreztu egingo genuke bai argindarrean eta baita ur kontsumoan ere. Ezjakintasunak narama hau galdetzea, udal eraikinetako argiteria guztia LED motakoa al da? Kalean kontsumo baxuko argiak jarrita dauden bezala, ze egoeratan daude udal eraikinak?

Oñatiko herrixari esker onak

Xabi Gesalaga, Oñatiko Zaporeak-eko boluntarixoen izenean

Ze nolako jarduna izan zan Zemendixaren (azaroa) 13ko Zapatukua! Herriko helduetan helduenak, gaztiak, hain gaztiak ez diranak, haurrak, honain gurasuak… jende asko pasau zan herriko kontzejupetik euren oinetakuak eta asmorik onenak eskainiz. 10:00etan hasi eta 15:00ak aldera arte, geratu barik ibili giñan, Hotz taldeko boluntzaixo eta herritar batek edo bestek lagunduta. Euskal Herri osuan batu dan oinetako kopurua 100.000-120.000 pare inguru izan dia eta honezkero Atenas, Lesbos eta Siriara bidian dia.

Oñatiko Zaporeak-en boluntaixuen aldetik, eskerrak emun besterik ez Oñatiko herritarrei! Beti hor agertzen bait dia biharra edo premiñia dauenian!

Bereziki eskerrak emun gura gotzake Urgain eskola, Txantxiku ikastola, Sillero zapata denda eta Ulma Packaging kooperatibari bilketa honetan izan dauein inplikaziñugatik.

Mila esker danoi!

Urbieta baserri ondoan biribilgunerik ez!!!

Agurtzane Etxeberria-arteun

Gipuzkoako Foru Aldundiak Goribar auzoan, Urbieta baserriari itsatsita, biribilgune bat egiteko asmoa duela jakinarazi digu. Biribilgune horrek bertan bizi garenontzat bizi kalitatearen galera nabarmena eragingo digu. Baserritik oso hurbil egongo den azpiegitura bat izango da, gure lur sail handi bat kenduz eta baita inguruko bizilagunenak ere. Ondorioz, baserriko bizilagunok, poluzioa, trafikoaren igoera eta kutsadura akustikoa jasan behar izango dugu. Horrez gain, sarbideetan eta irteeretan bide zailtasunak eta **arrisku egoera handiak** aurreikusten ditugu. Horrela, bertan bizi garen pertsonen osasunean eragin kaltegarria sortaraziko digu.

Bertatik pasatzen den trafiko astunari (kamioi asko tartean) irtenbide bat ematea da planteamenduaren helburua, baina Goribar auzoko baserrietako bizilagun guztiek jasan beharko dituzten arrisku eta inpaktuaren kontura.

Jakina da, bertan bizi diren baserritarrek beti egin izan dutela ingurugiroaren alde, nekazaritza-ekoizpen eta nekazaritza-bizitza mantentzearen alde. Lur sail handi bat kenduko digutenez, ezingo dugu ekoiztu eta gero merkatuan saldu landatzen ditugun barazkiak. Hainbeste bultzatzen eta estimatzen den zero kilometroko produktuen kalterako izango da. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu erakundeen babesa, bai udalarena, bai foru aldundiarena.

Horregatik, 2021eko urrian, Urbietako bizilagunok alegazioak aurkeztu genituen eta horrekin batera, Oñatiko auzo-alkate guztien sinadurak batu eta aurkeztu ziren **biribilgune hau proposatutako lekuan ez egiteko**. Bide batez, abiadura murrizteko eta trafikoa hobetzeko beste aukera batzuk aztertzeko eskatu genuen.

Gainera, kontuan izan behar dugu Oñatiko San Pedro inguruko auzotarrek urte askotan zehar eskakizunak egin dituztela San Pedroko bidegurutzean biribilgune bat egiteko. Horregatik, **beste aukera hau aztertu eta lehenetsi behar dela eskatzen dugu**.

BATUAK S.L.
Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

Tontorrez tontor, Pirinioetaraino

Aloñatik Goierri aldera begira jarrita, behe-laino finez estalita, Brinkola, Zegama, Idiazabal zein Aralarko gailurrak antzeman daitezke. Baina begirada pixka bat altxatuz, herritik bertatik, Pirinioetako mendilerroa ere ikus daiteke. 2022ko Foru Aldundiko egutegian ikusiko dugun argazki saritua da albokoa, gainera.

J.R. TXINTXURRETA

Hau guztia ikusita zuei laguntza eskatzea besterik ez zaigu gelditu. Horretarako, herri mailan, 18 urtetik gorakoen sinadura bilketa egiten hasi ginen azaroak 24an. Egun eta leku ezberdinetan egon gara orain arte. Hemendik aurrera, barazki azokan, larunbatero, 8:00etatik 12:00etara egongo gara produktuak saltzen eta bertan jasoko ditugu sinadurak.

Oraingoan ere Auzo alkateen laguntza izaten ari gara eta beraiekin adostuko dugu auzoetan sinadura bilketa nola egin (elkarte edo beste toki batzuetan orriak utziz) eta beraien bitartez zabalduko dugu erabakia.

Gainera, Bizipoz, Suministros Arri eta Sanprubusekoei eskerrak eman nahi dizkiegu beraien laguntza eskaini baitigute. Hiru leku horietan egun osoan zehar izango duzue aukera orriak sinatzeko. Ohar honen bitartez esan nahi dizuegu zuen datuak bakarrik helburu horretarako erabiliko direla. Beraz, ez dute inolako eraginik izango zuengan.

LAGUNDU ETA SINATU, MESEDEZ! ESKERRIK ASKO!!

OHAR ETA DEIALDIAK

• 'TAUPADAK' AZOKA, ABENDUAREN 18AN

Abenduaren 18an, larunbata, Foruen plazan (10:00-14:00) egingo da Elkar Hezi ikastetxeak antolatzen duen 'Taupadak' elkartasun azoka. Gobernuz Kanpoko Erakunde ezberdinen lana bertatik bertara ezagutu eta justizia sozialean oinarritutako gizarte eredu bat posible dela aldarrikatuko da bertan. Aurten arreta berezia eskainiko zaie gure bailaran lan egiten duten taldeei, 0 kilometroko proiektu solidarioei.

• PRESOEN ALDEKO FUTBITO TXAPELKETA

Oñatiko Ernaik antolatuta, euskal preso eta iheslariak etxeratzearen aldeko futbito txapelketa jokatuko da abenduaren 26 eta 27an, kiroldegian. Abenduaren 20ra arte egongo da izena emateko aukera Ona, Boga eta Arrano tabernetan.

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

OÑATIKO GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU LAGUNTZEN DATUAK 2021

2021an ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, Oñatiko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du, eta hau 35 urte arteko herritarrek eskatu ahal izan dute. Aipatzea laguntza hauen xedea ondorengoa dela: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko herritarrei etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea. Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, gazteak alokairuko etxebizitzen erabiltzaile nagusi diren neurrian, pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, zazpigarrenez, emantzipaziorako diru-laguntzak banatu ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, eta une hau momentu egokia ikusten dugu diru-laguntzen eta bilakaeraren balorazioa egiteko.

Aipatzekoa da azkeneko urtetan eskaera kopurua egonkortuta bazegoen ere, aurten berriro igo dela. Horrela aurten 47 eskatzaile izan ditugu, eta guztien artean 65.000,00 € inguru banatu dira. Argi dago Oñatiko gazteen artean diru laguntza honek izan duen eragina nabarmena dela.

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, berriro ere nesken eskaera-kopuruak gora egin duela, eta hirugarrengo urtez nesken emantzipazio kopurua altuagoa de mutilena baino, 28 neska eta 19 mutil. Neska gazteen kolektiboan positiboki eragiten ari garelakoan gaude.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmentzeko beste datu bat, eskatzaileen gehiengoa 25 urtetik gorakoa bada ere, aurten profil hori apur bat gaztetu da, %25a 25 urte azpikoa baita.

Gauzak horrela, laburbilduz, aurten ere Oñatiko Udalaren izenean egiten dugun irakurketa oso positiboa da. Izan ere, gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari garelako, eta Oñatiko gazteen ongizatean zuzen eragiten ari garela uste dugulako.

AGENDA: 2021.12.7 gaztelekuko topalekua, durangoko azokara irteera. I 2021.12.18 eta 2021.12.19 Goazen 8.0 kontzertua (6 eta 16 urte bitartekoentzat), Santa Ana aretoan (17:00 eta 19:00). Sarrerak 5€, Txokolaterixan eta www.oñati.eus, abenduaren 11an jarriko dira salgai, goizeko 10:30etan. 2021.12.26 Iker Martinez eta Zaldi herrenak + Ramada Inn, Gaztelekuan (19:00). Sarrerak 6€, Txokolaterixan eta www.oñati.eus, abenduaren 4tik aurrera. I Gabonetako ekintza bereziak egongo dira Ludotekan eta Gaztelekuan.

atxi murka

#8. Hil

Txikitako argazkiak begiratzea
hildako pertsonen argazkiak begiratzea bezalakoa da
ez dituzu bertakoak guztiz ezagutzen.

Eta orain, gazte gineneko argazkiak begiratzen ditut
bizi-bizi geundenekoak
inoiz ezingo ditudanak akabatu;
betirako gorde beharko ditut.



Sortzailea bazara, animatu eta bidali zure lana: **atximurka@gmail.com** helbidera.

«Balore positibo asko ematen dizkit epaile lanetan aritzeak»

ALAIN ANTÓN ALCALA
EUSKADIKO SASKIBALOI FEDERAZIOKO EPAILEEN KOORDINATZAILEA

Hamalau denboraldi daramatza saskibaloiko epaile lanetan, eta Euskadiko federazioko epaileen koordinatzaile izendatu dute berriki. Formazio arloan eragin nahi du bereziki, oinarrizko kategorian dagoen epaile eskasiari erantzuteko asmoz

OSKARHAK34 PHOTO

[26. ORRIAN JARRAITZEN DU]

eratu
FISIOTERAPIA ZENTROA

GABONETAN
OPARITU OSASUNA
(fisioterapia saioak, masajea, entrenamendu pertsonala...eskuratu ezazu zure opari bonoa)
San Lorentzo 54 | T. 943 53 32 99 | M. 652 712 123 | eratu@euskalnet.net | www.eratufisioterapia.com

"PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA"

TELEFONO FINKOA

+ FIBRA 100Mb

+ 25Gb MUGIKORRA DEI MUGAGABEEKIN

+ 3Gb 2. MUGIKORRA DEI MUGAGABEEKIN

39'90 €/HILEAN (BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!
Alta ematea eta instalazioa ***DOAN***

EXTRAK:
**Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak*

TV PREMIUM	+ 6 €/HILEAN
2. ETXEBIZITZA FIBRA + FINKOA (Estatuko edozein herritan)	+ 18'90 €/HILEAN

·MUGIKOR GEHIGARRIAK

5Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 3 €/HILEAN
8Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 5 €/HILEAN
25Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 8 €/HILEAN

*** KONTSULTATU DENDAN ESKAINTZA BEREZIAK**

MÁSMÓVIL

LIZKER INFORMATIKA

Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

Euskadiko federazioko epaileen koordinatzailea zaitugu martxoaz geroztik. Nolatan?

Euskadiko Saskibaloi federazioko zuzendaritza taldea aukeratzeko hauteskundeak egin ziren otsailean. Luis Mari Sauturen taldea atera zen garaile, eta Roberto Asensio izendatu zuten epaileen zuzendari. Honek, era berean, bere konfiantzazko lantaldea eratu zuen, eta niri proposatu zidan epaileen koordinatzaile kargua.

Alain Antón, partidu batean.

Zein dira zure ardura eta egiteko nagusiak epaileen koordinatzaile gisa?

Alde batetik, euskal federazioak antolatzen dituen lehiaketa ezberdinetako asteburuko partidu guztietarako epaileen izendapenak ikuskatu eta oniritzia ematea; 40-45 partidu izaten dira astebururo.

Bestalde, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko federazioetako epaile-zuzendariekin hartuemanetan egon behar izaten dut, lehiaketak eta bestelako aktibitate batzuk antolatu eta koordinatzeko. Baita Nafarroa eta Errioxakoekin ere, bertako taldeak ere badaudelako gure lehiaketetan.

Gure epaileek saskibaloiko araudiaren inguruan hilero egin behar izaten dituzten testak onartu eta argitaratzea ere nire ardura da.

Horiez gain, Euskadiko hiru herrialdeetako eta Nafarroako selekzioen arteko txapelketak antolatzen ditugu, kategoria ezberdinetan. Azaroko, abenduko eta Gabonetako zubi eta jai egunetan antolatu ohi ditugu halakoak, eta aukera egokia izaten da epaileekin *stage* erako formazio saioak egiteko. Arlo teknikoa nahiz psikologikoa lantzen ditugu, eta hori guztiori ondo antolatzeak denbora dezente hartzen digu, batez ere irailetik abendura bitartean.

Zergatik onartu duzu ardura berri hau ?

Ni orain dela hamalau urte hasi nintzen epaile lanetan, eta gogoan dut garai hartan lan handia egiten zela federazio mailan gure belaunaldiko gazteak trebatzeko. Nik behintzat hala sentitzen nuen, epaile baten formazioak denbora eta baliabide asko eskatzen baititu.

Beraz, pentsatu nuen esker ona adierazteko eta bere egunean jasotakoa bueltatzeko modu bat izan zitekeela nire denbora eta lanerako gaitasuna federazioaren zerbitzura jartzea. Horregatik hartu dut ardura berri hau.

«Azken urteetan lan gutxi egin da jende gaztearekin eta orain epaile gutxi ditugu beherko mailetan»

«Bere egunean epaile izaten irakatsi zidaten pertsonei eskerrak emateko modu bat da federazioarentzat lan egitea»

ALAIN ANTÓN
EPAILEA

Zein da saskibaloiko epaileen errealitatea gaur egun Euskadin?

Epaile gutxi ditugu, batez ere beheko mailetan. Horixe da arazo nagusia une honetan. Azken urteetan lan gutxi egin da jende gaztearekin. Federazioaren helburua izan da hemengo epaileak ahalik eta goren iristen laguntzea, baina harrobiarekin lan gutxi egin da, eta orain ari gara horren ondorioak ikusten. Gainera, pandemiaren ostean areagotu egin du arazoa.

Horregatik, federazioko zuzendaritza talde berrian oso garbi daukagu ahalegin berezia egin behar dugula, herrialdeetako federazioekin batera, jende gaztea erakartzeko, gaur egun dugun hutsune edo gabezia honi konponbidea eman eta gure konpetizioek eskatzen duten mailako epaileak trebatzen joateko. Horixe da orain gure lehentasunetako bat

Bestalde, goiko mailetan diharduten epaileei jarraipen handiagoa egiteko asmoa ere badugu, hori gabe oso zaila baita bakoitzaren progresioa eta gabeziak neurtzea. Astebururo bideoz grabatzen dira nazional mailako zenbait partidu, ausaz, epaileen lana aztertzeko.

Nora jo behar du epaile izan nahi duen gazte batek?

Hile honetan bertan, adibidez, epaile eta mahai teknikoko laguntzaile izateko ikastaroak antolatuko ditugu Gipuzkoako federazioarekin batera; *www.gisaski.eus* webgunean dago informazio guztia.

oñabike
oñabike.com
Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65
BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

14 URTE EPAILE LANETAN

> Alain Anton zazpi urtez aritu zen Aloña Mendiko kategoria ezberdinetan, baina lesioen ondorioz nahi baino lehen utzi behar izan zion jokatzeari, eta berak hainbeste maite duen kirol hau beste modu batera bizitzen hasi zen. Entrenatzaile titulua atera zuen aurrena, baina ez zion gehiegi tiratzen eta, azkenik, epaile lanetan hastea erabaki zuen.

Probintzial mailako partiduak zuzentzen hasi eta, bigarren urterako, maila autonomikora igo zen, eta azken hamabi urteetan nazional mailan dihardu. Gainera, 2015/2016 denboraldian EBA mailako (Espainiako federazioa) partiduak zuzendu zituen.

Hamalau urte luze daramatza epaile lanetan, baina oraindik ez zaio burutik pasatu uztea, eta gaur egun federazioko epaileen koordinatzailea bada ere, astebururo zuzentzen du nazional mailako partidu bat, eta maila autonomiko edo probintzialeko besteren bat, beharrezkoa bada. "Tentsio puntu bat egoten bada ere, gozatu egiten dut oraindik ere epaile lanetan, eta, paradoxikoa dirudien arren, eguneroko estresetik ihes egiten laguntzen dit. Epaile lanak balore positibo asko ematen dizkit eta uste dut pertsona hobea izaten laguntzen didala" azaldu du.

Gomendagarria iruditzen zaizu saskibaloiko epaile lana?

Jakina! Saskibaloia bizitzeko beste modu bat da, azken batean. Beraz, jakin-mina duten gazte guztiak animatuko nituzke proba egitera.

Lehenengo urteak ez dira samurrak izaten, jokalari, entrenatzaile eta zaleen presioa jasan behar izaten delako, baina denbora pittin bat emanez gero, esperientzia aberasgarria eta gozagarria bilakatzen da.

Tamalez, gaur egun dena berehala lortu nahi izaten dugu, bestela frustrazioa sentitzen dugu, eta epaile lanak bere ikaste prozesua eta pazientzia dosi handia eskatzen du. Beraz, nire gomendioa litzateke, gustuko aktibitate bat bada, aukera bat baino gehiago emateko.

«Lehenengo urteak ez dira samurrak izaten, baina denbora pittin bat emanez gero, epaile lanaz gozatzera iristen zara»

Errespetatzen al da epaileen lana saskibaloian?

Astebururo egoten da arazotxoren bat han-hemenka, baina saskibaloia oso kirol diziplinatua da eta, oro har, baietz esango nuke. ■

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

MOTZEAN

Beristain Gipuzkoako txapeldun, Madina azpitxapeldun

ZIKLO-KROSA Arrikrutz-Aloña Mendi taldeko Alex Beristain eta Aimar Madina Gipuzkoako txapelketako podiumera igo ziren, azaroaren 13an Tolosan. Alex azkarrena izan zen kadete mailan, eta Aimar bigarrena gazte mailan. Madinak beste podium bat ere lortu du, hirugarren sailkatu baitzen Legazpiko proban.

Unzurrunzaga eta Egaña Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetako podiumean

KARATEA Azaroaren 13an Bergaran jokatu zen Euskadiko Kopan urrezko eta zilarrezko dominak irabazi zituzten Alazne Unzurrunzaga eta Karmele Biain Aloña Mendiko karatekek 21 urte azpikoen mailan (+61 kilo) kata modalitatean. Aste batzuk lehenago Hondarribian jokatu zen Gipuzkoako txapelketan ere oso emaitza onak lortu zituzten. Unzurrunzaga lehenengo sailkatu zen Kumite-an eta bigarren kata modalitatean. Egaña bigarrena izan zen Kumite-an.

Abenduaren 19an egingo du Aloñak, urteko azken mendi irteera

MENDIA Hondarribian kokatzen den Higer lurmuturretik, Pasai Donibanerainoko ibilaldia antolatu du Aloñako mendi sailak, abenduaren 19rako. Itsas ondotik abiatu, Jaizkibel gainera igo, eta amaieran, ohiturari eutsiz, bazkaria egingo dute Ontziola Jatetxean (20€ bertan ordaintzeko) urtea ondo amaitzeko.

20 kilometro eta 600 metroko desnibela izango du irteerak eta goizeko 7etan irtengo da autobusa postetxe paretik. Izena Aloña tabernan edo *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean egin beharko da abenduaren 16a baino lehen. Bazkideak 10€ ordaindu beharko dute. Gogoratu irteera hauetan parte hartzeko, mendian federatuta egon behar dela.

Herriko kirol solasaldia Goiena telebistan

IKUS-ENTZUNEZKOA Iaz egin bezala, udaleko kirol batzordeak antolatuta, herriko kirol aktualitateari buruzko urte amaierako mahai-ingurua egingo da Arantzazun. Hainbat solasaldi izango dira eta Oñatiko eragile ezberdinez gain, kirol arloko espezialista batzuen iritzia ere jasoko da. Saioa, abenduaren 17an, 21:00etan ikusi ahal izango da Goiena telebistan.

Euskaldunon muga eta kontraesanak gogoetagai

Fikzioa eta saiakera uztartzen dituen ***Totelak*** eleberria eman du argitara Fermin Etxegoienek



Fermin Etxegoienen laugarren fizkiozko lana da *Totelak*

"Espainolak?". Suitza aldean oporretan den bikote euskaldun batek entzun eta erantzun behar duen galdera horrekin hasten da Fermin Etxegoienek (Oñati, 1966) plazaratu duen ***Totelak*** (Erein) eleberria.

Euskaldunok maiz erantzun behar izaten dugun galdera horrek sortzen dizkigun kontraesanen inguruko gogoetan murgilduko dira, bularreko minbizia gainditu dutela ospatzeko Saint-Moritz (Suitza) inguruan dabiltzan bidaiari euskaldunak.

Fikzioa eta saiakera uztartzen dituen eleberria da ***Totelak***. Izan ere, bi trama narratibo ditu (Alpeetan dabilen bikotearena batetik, eta *Txet* ezizeneko musikari frustratu baten gorabeherak, bestetik), baina, finean, egileak gogoko dituen gaien inguruko gogoeta egiteko bidea ematen duen egitura limurtzailea baino ez da.

Euskal identitatea da, esan bezala, gai horietako bat (Euskal Herriarekiko eta Espainiarekiko diglosia existentziala), baina ez bakarra. Euskararen osasunaz eta etorkizunaz ere luze eta zabal hitz egiten dute nobelako pertsonaiek; euskara batuak egin duen bideaz, ezarri zaizkion mugez, bete gabeko espektatibez... "Euskaldun zahar askori segurtasuna ematen dion oihartzun nagusia euskalkiarena izan da; euskara batua, ordea, oihartzun ahula sortzen duen forma linguistikoa baino ez da"; "Onartu beharko dugu (Irlandan aspaldi gertatu zen bezala) euskaraz adierazkortasunez komunikatzeko gauza beharko luketen belaunaldi berrietako euskaldun ugari, gehienak, linbo inespresibo batean deuseztatu zaizkigula"; "Euskara batua antolatzen hasi ginenean zabarrago jokatu izan bagenu, zer?... Arrakasta sozial handiagoko euskara batua zabalduko ote genuen?".

Nobelako pertsonaien ahotan entzungo ditugun ideietako batzuk dira. Tesi literarioak dira, baina hausnarketarako atea irekitzen duten hainbat ideia sakon aurkituko dugu liburuan zehar.

» Euskal identitateaz eta euskararen osasunaz eta etorkizunaz egiten dute gogoeta nobelako pertsonaiek. Ruper Ordorikaren musikari buruzko tesi moduko bat ere badago liburuan

'RUPER ORDORIKA' KATEDRA

Musika da Totelak eleberriko beste ardatz nagusietako bat. EHUko 'Ruper Ordorika' katedra eskuratzeko deialdira aurkeztuko dira Txet eta Marga pertsonaiak (maitasun harremana sortuko da bien artean), ea horrek bidea emango dio Etxegoieni, Ordorika, Laboa, Lertxundi, Beatles, The Smiths eta beste hainbat talde eta musika estilori buruzko gogoeta interesgarriak egiteko.

Musika herrikoia eta akademikoaren arteko alderaketa bat egiten du egileak, eta uste du nolabaiteko paralelismoa dagoela hizkuntzarekin (euskal hiztun kontziente/inkontziente) gertatzen den bikoiztasunarekin.

ZURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Enkarna eta Maria Grisaleña ahizpak, beren ama Maria Eugenia Olalderekin, 1972. (Egilea ezezaguna)

'Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak'

LIBURUA ETA ERAKUSKETA

Artixa kultur elkarteak ***Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak*** liburua aurkeztuko du abenduaren 13an, kultur etxeko erakusketa aretoan, 18:30etan. Argazki eta testuetan oinarritutako proiektua da, emakumeak lanean izan duen presentzia erakustea helburu duena. XX. mendeko 60-70eko hamarkadetako hainbat argazki bildu dituzte, eta bakoitzaren inguruko azalpen labur batekin osatu dute liburua. **ERAKUSKETA**. Liburuarekin batera, 45 argazkiz osatutako erakusketa ere prestatu du Artixa taldeak, eta **abenduaren 13tik 23ra** egongo da ikusgai kultur etxean, egunero, 18:00-20:00.

'Gu gabe ere'

Itziar Ugarteren lehen poema liburua kalean da

Egilearen aro bital bat kontatzen duten poemak daude liburuan

Antixena gaztetxean aurkeztu zuen liburua Ugartek, Itziar Murgiondoren galderei erantzunez

Hurbileko hiru adineko pertsonen heriotzak markatzen du, nolabait, denbora bital horren hasiera. "Oso denbora gutxian gertatu ziren gure etxean, eta niretzat izan zen garai intentsua. Atzerrian egotetik nentorren, oso bizi, eta nahiko goitik behera zetorren giro bat aurkitu nuen etxe inguruan. Horrek oso adi jarri ninduen, ohartzen nintzelako haiekin batera beste zerbait ere hiltzen ari zela, eta horrek hainbat galdera eta kezka sorrarazi zizkidan".

Halaxe adierazi zuen egileak berak, joan den igandean Antixena gaztetxean egindako aurkezpenean. Hauxe zen jendaurreko lehen aurkezpen saioa, eta une berezia bizitzen ari dela aitortu zuen. "Hainbeste denboran zurekin eraman duzun artxibo hori beste batzuen eskuetan dabilela ikustea sentsazio berezia da, baina gustura nago, oihartzun polita sortzen ari delako irakurleengan".

Azken 4-5 urteetan "su motelean" idatzitako poemak bildu ditu liburuan, 57 guztira. Autonomoak dira beraien artean, baina sumatzen da, aldi berean, denbora edo garai bat kontatzeko nahia, "oinordekotzan jasotakoa eta eraiki gura dugunaren artean kokatu gura bat". Orri honetara ekarri dugun 'Negutegiko aulkia' poema horren lekuko.

Absentziak eta hutsuneek leku nabarmena dute liburuan, baina askotariko gaiak jorratzen dira: memoria, belaunaldien arteko talka, momentuen eta bizipenen akumulazioak sortzen duen zirrara, plazera eta mehatxua, 1936ko gerra, ETAren komunikatua....

NEGUTEGIKO AULKIA

Hona zenaren eta denaren
arteko argazkia:

belar txarrak hazita
negutegiaren horma kurbatuetan
landareen ontzi zulatuak
lur idorrean saiheska

—beti epelegi hemen
arintzen ez duen sargori bat
hutsa pisu bihurtzen—

zumitzezko aulki zahar bat
gainean katu zurtz bat duela
egurra janda eta izpiak solte

etorriko ez direnei
gordetako lekua da orain.

ANE MERTZERIA
• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.
• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Lope Agirreren eskultura bat Oñatiko plazan ipini ala ez

Horixe erabaki beharko dute Olaitturri elkarteak abenduan taularatuko duen antzezlanean

Alvaro Bermejok idatzitako 'Lope de Agirre' libururako Joseba Urretabizkaiak ateratako argazkia

Lope Agirre (Oñati, 1511 - Barquisimeto, Venezuela, 1561) Hego Amerikako esploratzaile eta konkistatzaileari buruzkoa da Olaitturri kultur elkarteak abenduaren 26an estreinatuko duen '***1562-Lope Agirreren estatua***' antzezlan berria.

Iñazio Irizarrek idatzi eta zuzendutako lana da, eta 1562ko irailean girotuta dago, Lope erail zutenetik urtebetera. Batzar berezia burutzen ari da Oñatiko udaletxean, Lope Agirreren omenez herriko plaza nagusian eskultura bat ipini ala ez erabakitzeko.

Ladron Belez Gebara kondea buru dela, Oinaztarren eta Ganboatarren buruzagiak, burdinoletako ordezkariak, iltzegin, ehule eta dendarien kofradietakoak, errektorea eta beste zenbait jaun eta andere bildu dira udaletxean, Lope Agirreren ama eta arrebarekin batera, haren eskultura bat herriko plaza nagusian jartzeak izango lituzkeen ondorioak, onak eta txarrak, mahai gainean ipini eta eztabaidatzeko.

ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIOAK

Batzuk alde azalduko dira, Lope Agirreren inguruan eraiki den ospe edo irudi txarra gezurretan oinarrituta dagoela argudiatuz; beste batzuek, aldiz, ez diote onurarik ikusten erabaki horri; uste dute Madrilgo gorteak gaizki ikusiko lukeela Lope ohorezko herritar izendatzea, eta horrek ondorio kaltegarriak

izango lituzkeela iltze eta burdinaren negozioetan eta, oro har, herriko ekonomiaren kalterako izango litzatekeela.

Antzezlanean zehar Lope Agirreren ibilerak eta ekintzak aztertuko dituzte, beste konkistatzaile batzuenekin alderatuz, ustezko kronistek Loperi buruz esan eta idatzitakoen inguruan eztabaidatuko dute, eta Lopek Felipe II.a erregeari bidalitako gutunean esandakoak gogoratuko dituzte beraien jarrera arrazoitzeko, bozketa egin aurretik.

Horixe, laburbilduta, Olaitturrikoen herri-antzezlan berriak kontatzen duena. Zazpi ekitalditan antolatuta dago, eta batetik besterako trantsizioan bertso musikatuak entzuteko aukera egongo da.

Makalena elkartetik sortutako Olaitturri elkartearen 20. emanaldia izango da hau. Azkena, 2019ko irailean eskaini zuten, Lehen Karlistadari amaiera eman zion Oñatiko Itunari buruzkoa, eta oraingoa Lope Agirreri buruzkoa izango da, araoztarraren heriotzaren 460. urteurrena bete berri den honetan. Pandemiak eragindako bi urteko etenaldiaren ostean, gogotsu daude berriz ere taula gainean agertzeko.

HITZALDI ZIKLOA

Abenduaren 26an izango da estreinaldia eta sarrerak hamabost egun lehenago jarriko dira salgai Txokolateixan eta egunean bertan antzokian.

Antzerkiaz gain, garai hartako testuingurua hobeto ulertzen lagunduko diguten hiru hitzaldi ere antolatu dituzte.

Kultur hamabostaldia

Antzezlana taularatzeaz gain, hiru hitzaldi ere antolatu ditu Olaitturri kultur elkarteak, Lope Agirre bera eta antzerkiak kontatzen duen istorioaren testuingurua hobeto ezagutzeko.

HITZALDIAK

Kultur etxean, 19:00etan

• ABENDUAK 13, ASTELEHENA
Gaia: 'XVI. mendeko Ameriketako konkistatzaileak'
Hizlaria: Oscar Alvarez, EHU/UPVko katedraduna
Aurkezlea: Karmele Biain (Olaitturri)

• ABENDUAK 15, ASTEAZKENA
Gaia: 'Lope Agirre, izaera poliedrikoa zeluloide zatitan'
Hizlaria: Agustin Goenaga, kazetaria
Aurkezlea: Iñazio Irizar (Olaitturri)

• ABENDUAK 21, ASTEARTEA
Gaia: 'Euskaldunak eta Ameriketako merkataritza'
Hizlaria: Jose Antonio Azpiazu, historialaria
Aurkezlea: Ana Mari Markuleta (Olaitturri)

ANTZERKI EMANALDIAK

Santa Ana antzokian

• ABENDUAK 23, OSTEGUNA (19:00)
'1562-Lope Agirreren estatua' antzezlanaren aurre-estreinaldia

• ABENDUAK 26, ASTELEHENA (19:00)
'1562-Lope Agirreren estatua' antzezlanaren estreinaldia

Sarrerak: Txokolateixan jarriko dira salgai hamabost egun lehenago, eta egunean bertan antzokian. Aurre-estreinaldia (bakarkako mikrofono barik) dohainik da.

Lope Agirreren gutunak euskaraz



Antzezlana prestatzearekin batera, Lope Agirrek 1561eko abuztua eta iraila bitartean idatzi zituen hiru gutun famatuak euskaratu ditu Olaitturri elkarteak. Francisco de Montesinos dominikar probintzialari zuzendutakoa da bat, Pablo Collado gobernadoreari bestea, eta hiruretan ospetsuena, Felipe II.a erregeari igorritakoa. Bere menetik eta Espainiatik banatzeko erabakia hartu dutela jakinarazten dio Lopek, Amerikaren independentziaren lehen adierazpen edo aktatzat jo izan den gutunean. Orain arte soilik Felipe II.ari bidalitako gutuna zegoen Interneten, eta erdaraz soilik. Orain hirurak irakur daitezke euskaraz ***https://olaitturri.blogspot.com*** atarian.

Loperen gutunez gain, '1562-Lope Agirreren eskultura' antzezlanaren testu osoa gazteleraz irakurtzeko aukera ere badago ***https://lopeaguirre.blogspot.com*** webgunean, eta gaiari buruzko bibliografia ugari ere aurkituko dugu bertan.

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

KONTZERTUAK

ABENDUAK 3 / 22:00
BIZARRO + BRAULIO
Bizarroren *Deshumanizazioa* birako azken kontzertua, Braulio ondarrutarrekin batera (5€ /3€). gaztetxean.

ABENDUAK 10 / 21:00
SUSTRAI BERRIAK + LEHEN LERROA
Iruñea eta Oñatiko punk Oi! taldeen kontzertua. Ikatz tabernan.

ABENDUAK 17 / 19:00
OÑATI ABESBATZA
Gabonetako kontzertua eskainiko du Oñati Abesbatzak. Doan. Agustiñotan.

ABENDUAK 18 / 17:00 eta 19:00
GOAZEN 8.0
Sarrerak (5€+gastuak) abenduaren 11n jarriko dira salgai, 10:30etatik aurrera Txokolateixan eta udalaren webgunean. Bakoitzak gehienez 3 sarrera erosteko aukera izango du. Santa Ana antzokian.

ABENDUAK 19 / 12:30
DON INOR EZ
Imanol Ubedak gidatzen duen taldearen emanaldia (5€/3€). Antixena gaztetxean.

ABENDUAK 19 / 19:00
'HATOR HATOR' GABONETAKO KONTZERTUA
Musika banda, txistulari taldea eta herriko abesbatzen Gabonetako kontzertua Aitor Biainek zuzenduta. Parrokian.

ABENDUAK 25 / 19:30
JUAN VALLS + KONTRAKO EZTARRITIK
Juan Valls bakarlaria eta Oñatiko punk-rock boskotearen (Txirli, Txebi, Joseba Azkarate, Pasko eta Imanol Ugarte) kontzertua. Ernaik antolatuta. Gaztetxean.

ABENDUAK 26 / 19:00
IKER MARTINEZ ETA ZALDI HERRENAK + RAMADA INN
Talde oñatiarrek beraien disko berriak estreinatuko dituzte (6€). Gaztelekuan.

ABENDUAK 26 / 21:00
SCREAMMERS AND SINNERS + ROKIN' TRIO
Arrasate eta Bilbo aldeko rockabilly taldeen kontzertua. Ikatz tabernan.

ABENDUAK 28 /
TXULETONS
Talde oñatiarrak urtero iñuxente egunez ematen duen kontzertua. Gaztetxean.

ABENDUAK 29 / 21:00
RUKULA + AisetsenA
M-ak eta *Anestesia* taldeen bertsioak jotzen dituzten talden kontzertua. Ikatz tabernan.

ABENDUAK 30 / 19:00
BLACK PEARLS OF GOSPEL
Pianoa eta ahotsak uztartzen dituen gospel boskotearen kontzertua. Santa Anan.

AZOKAK

ABENDUAK 18 / 10:00-14:00
'TAUPADAK' ELKARTASUN AZOKA
GKE-en lana eta elkartasun proiektuak ezagutzeko aukera. Foruen plazan

ABENDUAK 19
ARTISAUEN AZOKA
Oñatiko artisauen Gabonetako azoka (10:00-14:00) Merkatu plazan

ANTZERKIA

ABENDUAK 5 / 18:30
'LAKOSTE'
Duxusturi taldearen eskutik. Umore absurdoa zein beltza, kritika soziala eta ironia. Ernaik antolatuta. Gaztetxean.

DOKUMENTALAK

ABENDUAK 10 / 18:30
'MENDIAN HIL, HIRIAN HIL'
Oroitzapenaren eta itxaropenaren gaineko dokumentala. Doan. Kultur etxean.

HITZALDIAK

ABENDUAK 10 / 19:00
'FUIMOS EXILIO. SOMOS REFUGIO?'
Hizlaria: Josu Cueca (EHU/UPV). CEAR, Elkar Zabal eta Caritasek antolatuta. Santa Ana aretoan

ABENDUAK 15 / 18:30
'LARRIALDI KLIMATIKOA: SISTEMAREN KRISIALDITIK ETORKIZUNERA BEGIRAKO HAUSNARKETA BATZUK'
Hizlariak: Unai Pascual (Ikerbasque) eta Iñaki Barcena (Ekopol). EH Bilduk antolatuta, Kultur etxean

ABENDUAK 22 / 18:30
'BASERRIEN ETA BASERRITARREN BILAKAERA HISTORIAN'
Hizlaria: Gorka Menendez. STH taldeak antolatuta. Antixena gaztetxean

JAIALDIA

ABENDUAK 11 / Egun osoan
ANTIXENA GAZTETXEAREN 9. URTEUURENEKO OSPAKIZUNA
10:30 Gosari + zuhaitz landaketa gaztetxean; 11:30 Jolas mamarratxuak plazan; 13:00 Prentsaurrekoa plazan; 15:00 Bazkaria + kantu zaharrak; 18:00 Elektrotxaranga, gaztetxetik hasita; 21:30 Kontzertuak (Nikotina, Larru Beltzak eta Yogurinha Borova.

ETXiAN Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

carpintería GARIBAI aroztegia
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

IPUINAK+MAGIA

Munduari bira (ia) 80 trukutan

HAUR LIBURUTEGIAN
abenduak 17 / 18:00

6-9 urte arteko haurrei zuzendutako saio berezia, ipupinak eta magia trukoak uztartzen dituena, Imanol Ituiñoren eskutik. Mago bat bere etxeko atarira heltzen da munduari bira osoa eman ondoren. Giltza ateratzera doanean... Hara! Norbaitek lapurtu dio! Bere mundu bira bitxi horretan ikasitako trikimailu guztiak beharko ditu giltza jon dagoen argitzeko. Lagunduko al diozue? Izen-ematea abenduaren 1etik aurrera.

GABONETAKO IRRATSAIO BEREZIA OÑATI IRRATIAN

ABENDUAK 25 / 10:00

Mikel Aranburuk gidatutako saioan Gabonak Oñatitik kanpora igaroko dituzten hainbat herritar elkarrizketatuko dituzte, eta hainbat sari zozketatuko dituzte entzuleen artean.

LIBURUTEGIA

Hileko gomendioa

Durangoko Azoka Udal liburutegian.Durangon egongo diren nobedade gehienak liburutegian daude ikusgai. Lasai begiratzeko aukera eta maileguan etxera eramateko, noski. Erosi edo oparitu aurretik liburuei begirada bat emateko aukera aparta. Argitaletxeka antolatuta, helduen liburutegian ikusgai.

ZINEA

ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00)). Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Abenduak 2 - 8

ZINE KLUBA: Siempre contigo
NAGUSIAK: Way Down
GAZTETXOAK: Una familia feliz-2

Abenduak 9 - 13

ZINE KLUBA: La ruleta de la fortuna y de la fantasía
NAGUSIAK: El espía inglés
GAZTETXOAK: El encanto

Abenduak 16- 20

ZINE KLUBA: Quo vadis, Aida?
NAGUSIAK: Pan de limón con semillas de amapola
GAZTETXOAK: Clifford, el gran perro rojo

Abenduak 23 - 27

ZINE KLUBA: El poder del perro
NAGUSIAK: El amor en su lugar
GAZTETXOAK: Trash (EUSKARAZ)

FARMAZIA

ANDUAGA
San Lorentzo 3 ☏ 943 78 21 16
Abenduak 2, 8, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30.

IGARTUA
Kale Zaharra 1 ☏ 943 78 01 22
Abenduak 3, 4, 5, 6, 13, 14, 22 eta 23. Urtarrilak 1.

GARATE
Kale Barria 42 ☏ 943 78 05 58
Abenduak 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.

ULDAIN
Kale Barria 6 ☏ 943 78 11 28
Abenduak 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.

MERKATU TXIKIA

ETXEA ALOKAGAI Etxebizitza (estreinatzeko) alokairuan ematen da San Martin auzoan. Sukaldea, egongela, 2 logela, bainua eta trastelekua. Garaje itxia alokagai, aukeran. 685 712 295.

GARAJEAK ALOKAGAI Bi garaje itxi alokagai Lazarraga kalean. Deitu: 661211353.

GARAJEA ITXIA SALGAI Ugarkaldeko 1-2 atarien azpian (17,53m²). Sotoan (-1 solairuan). Kotxe handi bat eta bizikletak sartzeko lekua. Sarbide erosoa. Oso ondo zaindua. Deitu: 697745137 (Maria).

ODOL ATERALDIA

ABENDUAK 10 / 16:30-20:00
Enpresagintza fakultatean

Itten bat

(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (9)

HIKALDIXA

Jon: Zer, Facebooken hago?
Amaia: Bai!
J: Eta zer esaten xon, ba?
A: Hemen ñabik HIKALDIXAren inguruko barrixak irakurten.
J: HIKALDIXA? Zer don hori?
A: Zer esaten dostak? Eztakik zer dan? Aurten Euskaraldiaren partez Hikaldixa gertatu xuai! Fan zan astian hasi zuan. Zemendixaren (azarua) 26ttik abenduaren 5era izango dok. Ez haiz enterau?
J: Ba, etxakiñat ezer…
A: Nun bizi haiz hi? Orain dala urte pare bat-edo herriko taldetxo bat hasi zuan emakumien hittatua edo noka barriz be modan jarteko ahalegiñian, badakik…
J: A, bai, bai, akordaitten naun zeozekin!
A: Ba, makiña bat gauza egin xuai harrezkero: hika egitten dauein berrogetaka emakumeri alkarrizketak, Ahotsak web-orrixan ikusi lleikienak, Oñatiko hittanua lantzeko liburutxua… eta oraintxe puntuan Oñatiko hika ikasteko aplikaziñua be atara xuai. Mobillerako aplikaziñua: “Appa Hi!”
J: Hori don markia hori, eta ni enterau ez! Geldigorrak dittun, gero!
A: Bai, horixe! Ni be hasi nauk aplikaziñua probaitten, betik aditz igualekin bueltaka ñabik eta ondo etorriko xatak.
J: A, ba neri be interesaitten xatan, hirekin askotan etxonat jakitten-eta, ondo nabillen ala ez.
Eta lehen aittatu donan Hikaldixa zer don ba? Geuk be zeozer egin biharko xonagu, ezton?
A: Ba, herrixan sortu dan girua ikusitta, Aiuntamentuak Hikaldixa martxan jartia erabagi xok. Danon artian hika egittia dok asmua, eta ez mutillen artian bakarrik, zuek bestela be egitten dozue-eta. Tokaren eta nokaren ebaleria pultzaketako, “***Ingo xonau? Ingo xuau!***” txapak atara ditxuai. Eta txapia jantzitta dakonari hika egittia dok kontua, hamar egun horreittan. Igual dok ezpadakik be, belarrixa egitten fateko be balixo xok. Gaiñera, hikapoteuak eta hika bertso-saixua be organizau ditxuai. Zer pentsaitten xak?
J: Asmo bikaiña, hi! Eta ni Andartora begira! Jo, ba esango dostan noiz dan hurrengo hikapoteua!
A: Bai, mutil, geure artian ebalten doguna herrittar gehixagorekin ebaltia besterik eztok egin bihar, eta hala jente gehixago ezagutu eta beste harreman batzuk be egingo ditxuk. Etxak pentsaitten?
J: **Ederto! Ba neu be HIKALDIrako gertu ñagon!!**

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA

Maristetako beste gabon-batze bat

Lehenago be, orain dala hamahiru bat urte, sail honetantxe atara geben gerra ostetxuan maristetan ikasten ziaharduein mutikuak eginddako gabon-batzeiaren argazkixa. **Ha 1943kua zan, eta gaurko hau 1945-1946 ingurukua** izan leike, ikasle asko fotografixa bixetan agerketan dira-eta.

Orduko **ohitturia kalerik-kale ibilttia zan** abenduaren 24an, kantuan eta dirubatzen. Kaletik haruntzago be aillegaitten ziran, batez be **aberats-etxietara**, hareik eskupeko hobia emungo euelakoan: adibidez, **Garai** familixiaren bizilekuetara Larrañako euren aparteko esparruan, edota **Ginea-Elortzatarren** txalet dotorietara Goribar auzuan. Batzuetan esperantzak beteten ziran, baiña ez beti.

Ikasturte batzuk berandutxuago, Gabon bezperako ibillera horreittan jarduteko txandia guri heldu xakunian, akordaitten naiz lau mutikoren artian eruaten zan **"belen" edo jaiotza batekin** urten gebela. **Bi gabon-kanta** ikasi gittuan, **bata euskeraz eta bestia erderaz**: euskerazkoa ***Belenen sortu zaigu Jainkoa*** zala uste dot, eta erderazkua ***Vamos, pastores, vamos*** izan zeikien. Sasue illun haretan, **politika-kontuetan iñuzentiak giñan artian**, eta iñoiz laprastadatxoren bat baiño gehixago egin ete gebelakuan nago: hau da, erderaz "tokaitten" zan lekuan euskeraz kantaittia, eta aldrebes.

Ezkerretik eskumara eta gottik behera honeitxek dira identifikau ahal izan dittugun kantarixok:

Goixeneko illaran zutik: **Joxe Mari Martinez de Albeniz; Joxe Luis Ruiz de Arbulo; Joxe Luis Irizar; Jexus Guridi; Juanito Umerez; Jexus Alzelai; Manolo Arregi; [X. X.]; [X. X.];** eta **Jexus Astigarraga.**

Hirugarren illaran zutik: **Koldo Zulueta; Juanito Kortabarria; Jabier Galdos; Karlos Odriozola; Anjel Etxeberria; Teofilo Etxegoien; [X. X.]; Felix Altuna; Antonio Zabarte; Joxe Arregi;** eta **Jexus Mari Elorza**.

Bigarren illaran bankuan jarritta: **Juanito Biain**, saxofoiarekin; **Rafael Murua** [?]; **Juanito Urzelai**; **Joxe Mari Ezpeleta**; **Juan Joxe Aristegi**; **[X. X.]; Joxe Antonio Garai**; eta **Felix Kortabarria**, saxofoiarekin.

Lehenengo illaran, lurrian jarritta: **Rafael Zulueta; Jabi Altube** [?]; **Joxe Elorza; Salbador Ugarte; Patxi Irizar; Ramon Arregi; Joxe Luis Arregi; [X. X.];** eta **[X. X.]** makurtuta.

Ia falta diran banaka horrein izenen barri emuten lagunketan doskuzuen. Eskerrik asko!

Argazkixa Teofilo Etxegoienek eta Juanita Uribetxeberrriak jaretakua da.
Argibide batzuk Anjel Etxeberriak samurtu dosku. Milla esker!

Jerardo Elortza

70% OFF

Gabon hauetan etxea eraldatzeaz gain aurreztu egingo dut.

EIDERREN LOGELA BERRIA

TELE-LANA BURUTZEKO MAHAIA

ALTZARIEN LIKIDAZIOA

BEREHALAKO ENTREGATZEAREKIN

EXPOSIZIOKO ALTZARI GUZTIAK 70% -ARTEKO DESKONTUAREKIN

2021 eko Abenduaren 1 etik 31 arteko baliozko eskaintza.

Banak Importa. Zerkaosteta 3, 20500 Arrasate, Gipuzkoa.

banak importa